

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**16823** 35/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 22koa, Turismoaren sektorea, ostalaritza eta merkataritza laguntzeko eta zerga-arloko premiazko neurriena.

I

2020ko martxoaren 11n Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiara igotzen SARS-CoV-2ak eragindako osasun publikoaren larrialdi-egoera.

Orduan, berehalako neurri batzuk ezarri behar izan ziren osasun-krisialdiari aurre egiteko gure herrialdean. Neurri haiek eraginkorrak izan ziren eta gaixotasunaren hedapena gelditu zen. Horren ildotik, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuari esker aurre egin ahal izan zitzaion osasun-larrialdiari eta herritarren osasuna eta segurtasuna babestu ahal izan ziren.

SARS-CoV-2ak eragindako osasun-krisialdiak erabat aldatu du munduko ekonomiaren egoera. Elkarrengandik urruntzeko neurriak eta mugitzeko murrizketak beharrezkoak eta eraginkorrak dira birusaren hedapena kontrolatzeko, baina eragin handia dute ekoizpen-jardueretan eta herritarren ongizatean. Eragin hori eskaintzan nabaritu da (eragozpen handiak izan dira hornidura-kateetan eta negozio batzuk aldi batez itxi behar izan dira), bai eta eskarian ere (barrukoan zein kanpokoan), eta horrek ondorio larriak izan ditu Espainiako ekonomiaren funtsezko sektore batzuetan, esate baterako turismoan eta merkataritzan. Negozioak aldi batez ixteak, zirkulazio askeari murrizketak ezartzeak eta ekitaldi publikoak bertan behera uzteak eragina eduki dute enpresetan, ezinbestean, eta kontuan eduki behar da enpresak funtsezkoak direla gure lurraldean enplegua eta aberastasuna sortzeko. Egoera horretan, sare produktiboa babestea eta enpresek aldi batez edukiko dituzten eragozpenei aurre egitea lehentasunak dira pandemia honen ondorioak gainditzeko.

Egoera honi aurre egiteko asmoarekin, martxoaz geroztik Gobernuak inoiz ez bezalako neurriak ipini ditu abian sare produktiboari eta gizarteari laguntzeko, larrialdiaren ondorio negatiboak murrizteko eta osasun-alarma amaitutakoan berriz ere jarduera ekonomikoa beren mailarik gorenera bultzatzeko baliagarria izango den oinarria finkatzeko. Besteak beste, martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak, apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuak eta uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuak zenbait neurri ezarri zituzten likidezia sustatzeko, lanaren arlokoak eta errentei eustekoak. Arreta berezia eman izan zaie langile autonomoei.

Deseskalatze-prozesua eta alarma-egoeraren indarraldia amaitu ondoren herrialdea normaltasun berrian sartu zen. Aldi horretan botere publikoek eta osasunaren arloko agintaritzek gaixotasunaren agerraldiak kontrolatzeko eta kutsatzeak eragozteko neurriak ezartzen jarraitu dute. Besteak beste, 21/2020 Errege Lege Dekretua onartu zen (ekainaren 9koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriena), Pandemiaren kontrolatzeko azkar erantzuteko Plana ezarri zen, Estatuko Osasun Sistemaren Lurralde arteko Kontseiluan osasun publikoaren arloan koordinaturik aritzeko adierazpenak adostu ziren eta autonomia-erkidegoetako eta hiri autonomoetako agintaritzak eskudunek zenbait xedapen eta egintza eman zituzten.

Hala ere, udazkena heldu zenean, Espainian, Europako herrialde gehienetan bezala, kasuak goraka hasi ziren eta neurri gehiago ezarri behar izan ziren beste alarma-egoera baten itzalpean (926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, Alarma-egoera deklaratu duena SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko).

## II

Turismoaren balio-katea egungo osasun-krisialdiak kalterik gehien egindako jarduera ekonomikoetako bat da. Turismoaren arloan, Espainia nagusi da mundu osoan. Sektore honek Espainiaren BPGd-ren % 12,4 sortzen du eta bertako langileak Gizarte Segurantzako afiliatuen % 13,7 dira. Urtarriletik urrira bitarteko aldian heldu diren turisten kopuruak ehuneko 76ko jaitsiera izan du 2019ko aldi berarekin alderatuta; halaber, turisten gastuan ere antzeko beherakada gertatu da: turistek aurreko urtekoa baino ehuneko 75,9 gutxiago gastatu dute. Etorri diren turisten beherakadak eragin handia izan du hotelen sektorean, aireko garraioaren sektorean eta eskatu ahalako autobus-garraioaren sektorean.

Beste alde batetik, txikizkako merkataritzan ere narriadura-zantzuak igartzen dira osasun-egoerak ekarri dituen ondorioen eraginez. Txikizkako merkataritza sektore garrantzitsua da Espainiako ekonomian, bai tamainaren aldetik (BPGd-aren % 5,2), bai sortzen duen enpleguaren aldetik (guztirako langileen % 10, merkataritzaren sektoreko langileen % 58,2), bai lurraldearen ekonomia eta gizartea antolatzen duten osagaietako den aldetik: 2019an Espainian jardunean ari ziren enpresen % 13,2ren jarduera nagusia txikizkako merkataritza zen. Txikizkako merkataritzak enplegu asko sortzen ditu emakumeentzat. Izan ere, ia 2 milioi pertsona ari dira sektore horretan eta % 60tik gora emakumeak dira. Gainera, lege-euskarria pertsona fisikoa den txikizkako merkataritzako denden % 51 emakumeenak dira; Espainiako ekonomian % 36,7baino ez dira.

SARS-CoV-2 birusak eta horren kontra egiteko neurriek eragin oso handia izan dute txikizkako merkataritzako enpresen salmentetan eta enpleguan. Estatistikako Institutu Nazionalaren txikizkako merkataritzaren indizeen arabera, sektore horretako salmentak (prezio konstanteetan) batez beste % 8,5 gutxitu dira urtarriletik irailera bitartean.

Gainera, kontuan eduki behar da sektore horretan langile autonomo eta mikroETE asko ari direla eta funtsezko egitekoa dutela ekonomian eta gizartean. Orobat, merkataritzako establezimenduak ixteak sektoreko diru-sarrerei eta enpleguari ez ezik, beste sektore produktibo batzuei ere kalte egiten die, haiek saltzen dituzten produktuak hornitzen dituztenei, hain zuzen.

Azaldu den egoera eta pandemiaren bilakaera kontuan harturik, ezinbestekoa da aurreko hiletan onartutako laguntzetako batzuk zabaltzea, eta neurri berriak onartu behar dira jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enpresak eta autonomoak bultzatzeko.

## III

Osasun-krisialdia sortzen ari den ondorio ekonomikoei eta sozialei aurre egin nahian, lehenengo alarma-egoera ezarri zenetik (463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa) Gobernuak zenbait neurri ezarri ditu kalterik handienak jasan dituzten sektoreei laguntzeko. Neurri garrantzitsuenetako batzuk honako hauek izan dira: aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEEE), hipoteka-zorren luzamenduaren legeria eta ICOren abal-lerroa. Orain arte ezarri diren neurriak oso eraginkorrak izan dira enplegua mantentzeko eta lanpostuen suntsipena gelditzeko.

Turismoaz denaz bezainbatean, ABEEEEak oso garrantzitsuak izan dira. Turismoaren sektoreko enpresa askok heldu diote ezinbesteko arrazoiengatik aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteari; espedienteen eraginpeko langileen kopuruaren ikuspegitik, espediente horiek arlo hauetan izan dute eraginik handiena: janari eta edarien zerbitzuak; ostatu-zerbitzuak; kirol, aisialdi eta entretenimendurako jarduerak; bidaia agentziak eta turismo-operadoreak; aireko garraioa. 2020ko azaroa itxi zenean, turismoaren sektoreko (bidaia agentziak barne), ostalaritzako eta merkataritzako 473.000 langiletik gora ABEEEE baten eraginpean daude oraindik SARS-CoV-2aren ondorioz.

Aldizkako langile finkoen ABEEEEak zabaltzea dela eta, gaur egun 200.000 inguru dira lanaldia etenda edo murriztuta dutenak eta 32.000k martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak, 25.6.d) artikuluan arautzen duen aparteko prestazioa jasotzen dute. Aurreko kopuru horren arabera, uste da neurri horri esker turismoaren sektoreko 125.000 inguru aldizkako langile finko kontratatu direla.

Beste alde batetik, sektoreko enpresek likidezia eduki zezaten, Gobernuak COVID-19 abal-lerroa ezarri zuen ICOren bidez. Horren bidez, joan den azaroaren 30era arte 41.500 milioi euroko maileguen abalak eman zitzaizkien turismoaren sektoreko (bidaia agentziak barne), ostalaritzako eta merkataritzako 256.000 enpresari baino gehiagori. Kopuru hori lerro honen bidez emandako finantzaketaren % 37 da. Abal horiek Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren COVID lerroko 400 milioi euroei gehitu zaizkie; COVID lerro hori ehuneko ehunean exekutatu egin da. Onuradun nagusiak hotelak, jatetxeak, aireko bidaiari-garraioko enpresak eta bidaia agentziak izan dira.

Espainiako Bankuaren arabera, urriaren 30era arte turismoaren sektoreko, ostalaritzako eta merkataritzako 40.000 langile autonomok heldu diote hipoteka-zorren luzamenduari. Halaber, 1.647 luzamendu eman dira turismo-jarduera baterako erabiltzen diren ondasun higiezinaren gaineko hipoteken zorrak ordaintzeko, 25/2020 Errege Lege Dekretuaren itzalpean (uztailaren 3koa, Ekonomiaren suspertzea eta enplegua bultzatzeko premiazko neurriena). Saldo bizia (zenbateko agregatuaren baliokidea) 1.800 milioi eurokoa zen. Beste 40.000 autonomori hipoteka-bermerik gabeko kreditu-kontratuen ondoriozko betebeharren etendura aplikatu zaie.

Azkenik, turismoaren sektorerako berariaz, joan den ekainaren 18an, Gobernuak Turismoaren Sektorea Sustatzeko Plana ipini zuen abian. Plan horretan 28 neurri ezarri dira, 4.262 milioi euroko zuzkidurarekin, Espainia destino segurua delako ustea zabaltzeko, turismoaren sektorearen lehiakortasuna hobetzeko, sektorea suspertzeko, turismoaren arloko ezagutzarako eta adimenerako eredia sendotzeko, eta marketin eta promozio jarduerak egiteko.

Plan horretan garrantzi handia eman zitzaizen prestakuntzarako neurriek. Esaterako, Anfitrioniak Programaren barruan berariazko gaikuntza ezarri da sektoreko langileek osasun-segurtasunerako neurriak bete ditzaten.

Lehiakortasuna hobetzeko, sustatze-planak turismoaren arloko adimen-tresna berrietarako laguntzak ezarri zituen. Horiei esker Turismoko Datuen Bisorea (DATAESTUR) sortu da, turismo-helmuga adimendunen sarea sendotu da eta turismo-helmuga iraunkorrerako planen programa ezarri da; programa horretan 58 milioi euro inbertitu dira 2020an eta dagoeneko exekutatzeko fasean daude 25 proiektu onuradunak, autonomia erkidegoekin eta toki erakundeekin batera.

Beste alde batetik, merkataritzaren sektoreari dagokionez, Gobernuak zenbait neurri jarri zituen abian hasierako momentutik, eta horien onuradun izan dira bereziki sektore horretako enpresak eta langileak.

Turismoaren sektorean bezala, garrantzi berezia eduki dute enplegua mantentzeko eta sare produktiboaren suntsipena eragozteko neurriek (aipatu behar da ABEEEn eraginpeko txikizkako merkataritzako langileen bi herenak emakumeak direla), zergak eta kontribuzio sozialak geroratzeko neurriek eta negozio-lokalen errentamenduaren inguruko neurriek. Halaber, ICOren COVID-19 abalen lerroak ere eragin handia izan du sektore horretan: txikizkako merkataritzan honelako 105.279 eragiketa egin dituzte 82.402 enpresak eta finantzaketa 8.343 milioi eurokoa izan da guztira.

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa harremanetan izan da etengabe autonomia erkidegoekin, merkataritzako elkarte nagusiekin, enpresaburuekin, Espainiako Merkataritza Ganberarekin, FEMPrekin eta sindikatuekin jarduketak koordinatzeko, batez ere deseskalatzearen inguruan eta normaltasun berrian merkataritzan aritzeko bete beharreko osasun-baldintzei dagokionez. Horrez gainera, etengabeko solasaldia izan da sektorearekin denetariko galderei erantzuteko eta sortu izan diren zalantza guztiak argitzeko. Horren ildotik, kontsultak egiteko postontzia ezarri zen; martxoaren 17tik aurrera erabili ahal izan zen. Abuztu amaierara arte herritarrek, elkarteek, enpresek, udalek eta autonomia erkidegoek egindako ia 2.000 kontsultari erantzun zitzaizkien.

Kontsumoa sustatu nahian, zenbait publizitate-kanpaina antolatu dira Espainiako Merkataritza Ganberarekin batera; helburua txikizkako merkataritzari irauten laguntzea izan da. Hain zuzen ere, kontuan hartuta zein garrantzitsuak diren sektore horretan azaroa eta abendua salmenten aldetik, publizitate-kanpaina bat abiatu da hedabideetan «Pertsiana bat jasotzea herria eraikitzea da» lelopean denda fisikoetan kontsumoa sustatzeko. Horren

helburua da herritarrei eskatzea egunez egun laguntzeko merkataritzaren sektoreko establezimenduei, bai auzoko denda txikiei, bai erostetxe handiei, bai kaleko saltzaileei, aurrera jarraitu dezaten; gainera, kanpainan adierazten da lokalak seguruak direla eta merkataria profesional onak, uste osokoak eta hurbilekoak beren eguneroko lanean.

Horrez gainera, kanpaina horrekin batera mezuak zabalduko dira faltsifikazioak erosteak dakartzan kalteen berri emateko eta erosketara ugariko sasoi honetan ardurarekin eta segurtasunarekin kontsumitu behar dela gogorarazteko, Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak faltsifikazioen kontra sustatutako kanpainaren bidez.

Horrenbestez, errege lege-dekretu honen xedea da enpresen eta autonomoen egoera arintzea, batez ere turismo-, ostalaritza- eta merkataritza-jarduerarekin loturiko enpresena eta autonomoena, bideragarriak izan daitezen eta pandemiaren ondorioz behin betiko itxi beharrik eduki ez dezaten.

#### IV

Hauxe da errege lege-dekretu honen egitura: 4 kapitulu, 18 artikulua, 6 xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta 10 azken xedapen.

Errege lege-dekretu honen I. kapituluaren zenbait neurri ezartzen dira enpresek eta autonomoek errentamenduarengatik jasaten dituzten gastu finkoak murrizteko. Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak ezarritako aparteko neurrien ondorioz jarduera ekonomiko asko bertan behera utzi behar izan dira edo erabat murriztu behar izan dira.

Aurrekoaren ondorioz, alarma-egoerak irauten duen bitartean diru-sarrerarik ez badago edo diru-sarrera horiek gutxitzen badira, autonomoek eta enpresa txiki eta ertainek ezin izango dute alokairuko lokalen errenta ordaintzeko obligazio osoa edo partziala bete, eta horrek arrisku larrian jartzen du beren jarduerarekin jarraitzea.

Alderdiak elkarrekin ados jarri ezean, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak ez du errenta ordaintzea salbuesteko inolako kausarik aurreikusten ezinbesteko arrazoiagatik, alarma-egoera aitortzeagatik edo beste kausa batzuegatik, 26. artikuluan —obrak egitearen ondoriozko etxebizitzaren bizigarritasunari buruzkoa— aipatutakoa izan ezik, zeina lege honen 30. artikulua bidez aplikatu ahal izango baitaie negozio-lokalei.

Era berean, Kode Zibilararen ezinbesteko kasuari buruzko erregulaziora jotzen bada, ez du konponbide egokirik ematen, ez baitu alderdien arteko arrisku-banaketa doitzen, baina kontratua suntsiaraztea justifika dezake kasu larrietan.

Aurreko guztiagatik, erantzun egokia eman behar zaio egoera honi eta prozedura bat arautu behar da alderdiak gauza izan daitezen akordio bat adosteko lokalen alokairuen errenten ordainketa modulatzeko. Akordio hori apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuak, Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrienak, proposatu zuenaren jarraipena eta hobekuntza izango da.

Beste alde batetik, neurri hauek ez diete kalterik egiten alderdiei laguntzen dieten eta Espainiako Konstituzioaren 33. eta 38. artikuluetan hurrenez hurren jasotako jabetza pribatuaren eta enpresa askearen funtsezko edukia errespetatzen duten konstituzio-eskubideei. Neurri horiek bat datoz Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak harreman juridiko-pribatuetan Estatuak esku hartzeko antzeko neurrietarako ezarri izan dituen konstituzionaltasun-parametroekin, zeren eta ez baitakarte adostutako errentaren eduki ekonomikoa hustea eta ez baitute eragiten errentan emandako ondasunaren onura ekonomikoa funtsean galtzea edo hustea (Konstituzio Auzitegiaren 89/1994 epaia, martxoaren 17koa). Ildo horretan, eta jurisprudentzia konstituzionalaren arabera, errentamenduan emandako jabetzaren onura ekonomikoak berekin dakar dagokion errentamendua jasotzea.

Hain zuzen ere, errege lege-dekretuak egokitasuna eta beharrezana betetzen ditu, argiro ezartzen baitu lehentasuna emango zaiola merkataritzako establezimenduaren errentatzaileak eta errentariak beren borondatez hitzartzen dutenari; izan ere, neurriak kasu jakin batzuetan baino ez dira aplikatuko, SARS-CoV-2aren pandemiaren ondoriozko egoera larri baten inguruan partikularren arteko ituna egiten ez den kasuetan, hain zuzen.

Azkenik, arauak proportzionaltasunaren printzipioa betetzen du, zentzu hertsian, zeren eta pandemiaren aurreko kontratu-erlazioek bere hartan irautea lagungarria izango baita hemendik aurrera gatazkak konpontzeko eta enpleguak, enpresak eta negozioak ez galtzeko, diru kopuruak ordaindu gabe ez gelditzeko eta konkurtsoak eta auziak ez sortzeko.

ABEEEak eta beren salbuespenak enpleguari eusteko oso eragingarriak izan direla ikusirik, II. kapituluan lanaren arloko eta gizarte segurantzaren arloko neurri batzuk ezartzen dira SARS-CoV-2aren pandemiaren ondorio kaltegarriak arintzeko. Hain zuzen ere, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrienak, zenbait sektore produktibo babesteko ezarritako neurriak sendotzen dira. Horrenbestez, jarduera hauen babesa sendotzen da: «Edarien handizkako merkataritza», «Jatetxeak eta janari postuak», «Edari establezimenduak», «Lorategi botanikoetako, parke zoologikoetako eta natura-erreserbetako jarduerak» eta «Zorizko jokoen eta apustuen arloko jarduerak». Izan ere, abenduaren 14an, jarduera horietan ABEEEen eraginpeko langileen tasa EJSNko kodeko afiliatuen % 15etik gorakoa izan da eta maiatzaren hasieratik lehengoratzeko-tasa % 65etik beherakoa. Horregatik, aipatutako errege lege-dekretuak lehen xedapen gehigarrian ezartzen dituen salbuespenak aplikatuko zaizkie orain aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak luzatu dituzten sektore horietako enpresei, espediente haien eraginpeko langileei dagokienez, bai jarduera etenda dutenei, bai 2020ko abenduan berriz ekin diotenei, bai eta Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jarri denetik, 4.2.a) artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, berriz ekin diotenei ere. Horiei guztiei errege lege-dekretu hartako lehen xedapen gehigarriaren 4. apartatuan ezartzen diren ehunekoak aplikatuko zaizkie.

Aurrera eginik, III. kapituluan zergen arloko neurri batzuk ezartzen dira. Hain zuzen ere, aurretik indarrean egon diren neurri batzuk berriz jartzen dira indarrean eta neurri berri batzuk ezartzen dira SARS-CoV-2aren ondoriozko krisiak sektore bereziki zaugarrietan (turismoan eta merkataritzan, besteak beste) daukan eragina murrizteko.

Hain zuzen ere, berriz ere indarrean jartzen da ETEek eta autonomoek diruzaintzako tentsiorik ez edukitzeko zerga-zorrak geroratzeko aukera: zerga-zorren ordainketa sei hilabete geroratu ahal izango da. Aurretik aukera hori martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituenak, ezarri zuen.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eremuan, zenbatespen objektiboaren metodoaren bidez kalkulatu den etekin garbiaren zenbatekoa osasun-larrialdiaren ondoriozko egoera ekonomikora egokitze xedez, 2020ko ekitaldiko aitortpenetan moduluen araberako etekin garbiari aplikatzen zaion murrizketaren ehunekoa handitzen da (orain % 5 da). Beraz, murrizketa % 20koa izango da orokorrean; turismoaren sektorearekin, ostalaritzarekin eta merkataritzarekin lotutako jardueretan, berriz, % 35ekoa. Gainera, murrizketaren zenbateko berria kontuan hartuko da etekin garbia kalkulatzeko, gero horren arabera 2020ko ekitaldiko laugarren ordainketa zatikatua eta 2021eko ekitaldiko lehenengo ordainketa zatikatua egiteko.

Halaber, ETEen eta autonomoen araubidea malgutzeko, apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuak egiten duenaren antzera, ezabatu egiten da behin pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, edo balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuaren edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren zenbatespen objektiboa hautatu ondoren hiru urte pasa baino lehen ezin hari uko egiteko legeak jasotzen duen debekua. Hain zuzen ere, ezartzen da 2021eko ekitaldiko aitortpenen zenbatespen objektiboaren metodoaren aplikazioari uko egiteak ez duela eragotziko 2022ko jarduera ekonomikoaren etekina metodo horren bidez kalkulatu ahal izatea. Halaber, 2020ko ekitaldian zenbatespen objektiboaren metodoari uko egin dioten zergadunek berriz ere metodo hori aplikatu ahal izango dute 2021eko edo 2022ko ekitaldietan, isilbidez, ekitaldiko lehen hiruhilekoko ordainketa zatikatua eginez, edo geroago, berariaz zein isilbidez.

Beste alde batetik, apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuak ezartzen zuen alarma-egoera indarrean egon zen aldia jarduera gabekotzat joko zela 2020ko lehen eta



bigarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuen zenbatekoak kalkulatzeko. Ildo beretik, errege lege-dekretu honetan ezartzen denaren arabera, urteko etekina zenbatespen objektiboaren metodoa aplikatuz kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko 2020ko lehen seihilekoan alarma-egoera indarrean egon den aldia, ez eta 2020ko bigarren seihilekoan, alarma-egoera indarrean egon zein ez, SARS-CoV-2aren epidemiaren bilakaerari aurre egiteko agintaritza eskudunak ezarritako neurrien ondorioz jarduera ekonomikoa etenda egon den aldia ere. Gainera, ezartzen da aldi horiek ez direla kontuan edukiko 2020ko laugarren hiruhilekoko ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatzeko ere.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoaz ezartzen denak finkatutako ildotik jarraituta, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuan egiten diren eragiketa arrunten urteko kuota % 20 murriztuko da 2020an; turismoaren sektorearekin, ostalaritzarekin eta merkataritzarekin lotutako jardueretan, berriz, murrizketa % 35ekoa izango da. Murrizketa horiek 2021eko ekitaldiko lehen hiruhilekoko kuotaren kontura sartu beharreko lehen zenbatekoa kalkulatzeko ere aplikatuko dira. Gainera, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuan egiten diren eragiketa arrunten kuota kalkulatzeko ez dira kontuan edukiko 2020ko lehen seihilekoan alarma-egoera indarrean egon den aldia, ez eta 2020ko bigarren seihilekoan, alarma-egoera indarrean egon zein ez, SARS-CoV-2aren epidemiaren bilakaerari aurre egiteko agintaritza eskudunak ezarritako neurrien ondorioz jarduera ekonomikoa etenda egon den aldia ere.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoan eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuan eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezian egin diren aldaketen ondorioak direla eta, epealdi berria finkatzen da metodo eta araubide berezi horien ukoak edo balio gabetzeak aurkezteko.

Beste alde batetik, zerga-pizgarri bat ezartzen da helburu honekin: turismoaren sektorearekin, ostalaritzarekin edo merkataritzarekin lotutako jarduera ekonomiko batzuk gauzatzeko lokalak alokatzen dituzten pertsona fisikoek beren borondatez erabakitzea 2021eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko errenta beheratzea, eta hori egiten badute gastu kengarri modura aurkeztu ahal izango dute hilabete horietako errenta-beherapena kapital higiezinaren etekina kalkulatzeko orduan.

Gainera, zerga-oinarria sozietateen gaineko zergaren arabera zehazten den zerga pertsonaletan, zordunen kaudimengabezien ondoriozko kreditu-narriaduren galerek eragindako kenkari-eskubidea emateko eskatzen den antzintasuna aldatzen da: oraindik aurrera enpresa txikietan aski izango da hiru hilabete pasatu izana zerga ordaindu beharra sortzen denetik zorra ordaintzeko epemugara arte, ez sei hilabete orain arte bezala; horren helburua da enpresa horiek azkarrago sartu ahal izatea galera horiek 2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietako zerga-oinarrian. Aurrekoa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarako ere ezartzen da: zor diren kopuruak azkarrago hartu ahal izango dira gastu kengarritzat kapital higigarriaren etekinen kalkulurako.

Azkenik, IV. kapituluan ezartzen diren malgutze-neurriei esker pizgarri erregionalak eta turismoaren sektorearen likidezia bermatzeko laguntzak mantendu ahal izango dira. Pizgarri erregionalak dira Estatuko Administrazio Orokorrak produkzioan inbertitzeko ematen dituen finantza-laguntzak, zeinen helburua baita enpresa-jarduera sustatzea, aurretik zehaztutako lurralde batzuk xede harturik. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira eta beren helburua lurraldeen arteko desorekak arintzea da.

Osasun-krisialdiak sortu dituen ondorioak ikusirik, agerikoa da malgutu egin behar direla laguntza horiek jasotzeko baldintzetako batzuk, eta horixe egiten da norberaren funtsen gutxieneko kopuruarekin, enplegua eta inbertsioa mantentzeko betebeharrekin eta proiektuen balizko exekuzioarekin.

Legeak 22.1 artikuluan aipatzen dituen entitateen errentariei, horri buruzko berariazko araudia baitago ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluan (23/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, zeinaren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen baititu). Horiek eskatzeko aparteko epealdia hasiko da.

Bigarren xedapen gehigarrian araubide iragankorra ezartzen da Merkataritzako ordutegiei buruzko abenduaren 21eko 1/2004 Legeak arautzen dituen turismo handiko lurraldeetarako. Txikizkako merkatariaik egoera larrian daudela oharturik, txikizkako banaketaren sektorea bultzatzeko eta sustatzeko neurri garrantzitsuenetako batzuk merkataritza-ordutegiak malgutzea eta erosketak sustatzea dira, eta horretarako ezinbestekoa da eremu bat turismo handikotzat jotzeko bete behar diren irizpideak aldatzea.

Gaur egun, abenduaren 21eko 1/2004 Legeak xedatutakoarekin bat baliatzen diren irizpideak dira aurreko ekitaldiko datuen barruan dauden biztanleei, ostatu-gauei edo gurutzaldietako bidaiariei dagozkionak. 2020ko datuetan aurreko urteetakoetan baino horrelako gutxiago izango dira, horregatik, 2021ean zona bat turismo handiko eremutzat jotzeko bete beharreko baldintzak askoz zailagoak izango dira betetzen eta hori kaltegarria izango da txikizkako merkatarientzat. Beraz, irizpide horiek ahalik azkarren malgotu behar dira, 2020ko datuak kontuan ez hartzeko; izan ere, urte horretako kopuruak hain dira baxuak, ezen bertan behera utz baitezakete arauaren helburua, txikizkako merkataritza suspertzea, alegia.

Hirugarren xedapen gehigarrian eutsi egiten zaio 2021. urterako, aparteko neurri gisa, aldizkako kontratu finkoak dauzkaten langileen jarduera-aldiak luzatzen laguntzeko hoberiari, autonomia-erkidego guztietan eta 2021eko apiriletik urrira bitartean, Estatuaren 2021eko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektuan otsailerako, martxorako eta azarorako ezarri den neurriaren osagarri. Horrez gainera, lehen bezala, hoberi horiek bateragarriak izango dira aplikatu ahal diren Gizarte Segurantzaren kuoten salbuespenekin.

Laugarren xedapen gehigarriak ikuskizun publikoetako artistak eta zezenketa-profesionalak salbuesten ditu betebeharrak honetatik: 2021. urtean Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean afiliatuta jarraitu ahal izateko, gutxieneko ordainsariak sortu dituzten zerbitzuak egin dituztela edo ikuskizun-kopuru jakin batean parte hartu dutela frogatzea. Salbuespen hau ezartzeko, kontuan eduki dira artista eta profesional horiek SARS-CoV-2aren pandemiaren eraginez beren jardunean jasan dituzten eragozpenak eta mugak.

Bosgarren xedapen gehigarrian luzatu egiten da azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuak, Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituenak, 1. artikuluan arautzen duen langabeziaren sorospen berezia eskatzeko epealdia langabezia-prestazioa 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 30era bitartean amaitu zaien pertsonentzat. Epealdi berria hilabetekoa izango da errege legedekretu hau indarrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Seigarren xedapen gehigarrian adierazten da interes orokorrekoak direla Ministro Kontseiluaren erabakien bidez onartutako Estatuaren segurtasunerako azpiegituren planetako azpiegiturak, instalazioak eta ekipamenduak eta atzerritarrak barneratzeko zentroak eraikitzeko, eraberritzeko, hobetzeko, handitzeko edo birgaitzeko obrak.

Beste alde batetik, azken xedapenetako lehenengoak berrikusi egiten du enpresako jantoki-zerbitzua emateko zeharkako formuletatik eratorritako gauzako lansariekin loturik aurreikusitako salbuespena, argitu nahi izan baita salbuespen hori urrunetik edo lanpostura joan gabe lan egiten denean ere aplikatu ahal dela. Horrenbestez, zerbitzua ostalaritzako establezimenduan bertan egiten denean ez ezik, lokaletik kanpo kontsumitzeko egiten denean ere aplika daiteke salbuespena, bai langileak lokalean bertan jasotzen duenean, bai lantokian uzten denean, eta urrunetik edo lanpostura joan gabe lan egiten den egunetan, lan egiteko hautatzen den tokian jasotzen denean ere bai.

Jarraian, azken xedapenetako bigarrenak aldaketa bat egiten du Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginaren hamargarren xedapen gehigarrian (testu bategina urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen); apartatu berri bat gehitzen du arautzeko nola koordinatuko diren hiri-antolamendua eta Estatuko

Administrazio Orokorren organoek Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 120. artikulua itzalpean egiten dituzten obrak. Indarreko araubide juridikoaren aplikazio praktikoan, egiaztatu da kasu horretan egungo testuak hutsaldu egiten duela larrialdietako jarduketa administratiboaren eraginkortasuna. Ondorioz, eta kontuan edukita artikulua horretan xedatzen dela berehala jarduteko beharra, aldaketa honen bidez administrazio eskudunen arteko komunikazioak egiteko epealdiak laburtzen dira.

Aldaketa horren osagarri, xedapen iragankor bat gehitzen da araubide juridiko hau aplikatu ahal dakien bera indarrean jartzen denean jaso gabe dauden proiektuei eta jarduketei. Horiek jasotzeko modua Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak arautzen du 243. artikuluan.

Azken xedapenetako hirugarrenean urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatzen da. Alde batetik, xedapen gehigarri bat gaineratzen zaio, hogeita hamaikagarrena; horren bidez, kuoten itzulketaren irismena mugatzen da kasu honetan: itzulketa eragiten duena epez kanpo egindako Gizarte Segurantzako datuak aldatzeko edo zuzentzeko eskaera denean. Horrelakoetan, eskaera aurkeztu aurreko hiru hiletako zenbatekoa baino ezin izango da jaso itzulketan. Beste alde batetik, aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren hamaseigarren xedapen iragankorra, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko Etxeko Langileentzako Sistema Bereziko kotizazioen oinarri eta tasei buruzkoa eta sistema horren babesari buruzkoa; aldaketa horren bidez, 2023ra arte luzatzen da lege horretan ezartzen den sistema berezi horretako kotizazioen oinarrien eskala aplikatuko den aldi iragankorra, oraingo testuaren arabera 2020an amaitu behar zena, eta horri esker xedapen iragankor horretan ezartzen dena bat etorriko da Estatuaren 2021eko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektuak sistema berezi horretako kotizazioen oinarriez eta tasez ezartzen duenarekin.

Ondoren, azken xedapenetako laugarrenean luzatu egiten da zinema-aretoen titularentzako laguntzetan diruz lagundu daitezkeen gastuak egiteko epealdia; maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuan jaso ziren laguntza horiek. Hasiera batean, 2020ko ekitaldian egindakoak baino ez ziren aintzat hartzen. Nolanahi ere, zinema-aretoetako jarduera erabat motelduta dago, osasun-neurrien eraginez, batetik, eta merkatuan produkzio handirik ez dagoelako, bestetik. Horren ondorioz oso zaila izan da diruz lagundu daitezkeen gastuak egitea 2020. urtean (are gehiago, kasu batzuetan ezin izan dira egin) eta ezinbestekoa da horretarako epealdia 2021eko maiatzaren 31ra arte luzatzea.

Azken xedapenetako bosgarrenak apartatu berria gehitzen du Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren 29. artikuluan. Pandemiaren ondoriozko egoerak eragotzi egin du errege lege-dekretu horretan ezartzen den prozedura hasieratik eta modu orokorrean aplikatzea, izan ere, administrazioen arteko elkarreragiketarako garapen teknikoak egitea beharrezkoa izan da. Orain, garapen teknikoak eginda daudela, premiazkoa da prozedura abian jartzea ahalik azkarren artatzeko gutxieneko diru-sarrerak babestea helburu duten beharrian egoerak. Gainera, mekanismo hau aurrerapausoa da administrazioen arteko lankidetzan, eta onuragarria herritarrentzat, hurbilen duten administrazioarekin aritzeko aukera emango baitie.

Azken xedapenetako seigarrenak azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen du Itsasoko Gizarte Institutua eta beraren eskumenak aipatzeko.

Azken xedapenetako zazpigarrenak ezartzen du BEZaren tasa % 0 izango dela COVID-19aren kontra borrokatzeko txertoen eta in vitro diagnostikoak egiteko osasun-materialen Batasunaren barruko emateetan, inportazioetan eta erosketetan, Espainiako biztanleen txertatze-prozesua eta gaixotasunaren bilakaeraren diagnostikoak errazteko pandemia ezabatu arte. Tasa hori 2022ko abenduaren 31ra arte aplikatuko da. Xedapen horretan ezarritakoa zuzentarau honek jasotakoarekin bat etorri ezartzen da: (EB) 2020/2020 Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2020ko abenduaren 7koa, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen duena COVID-19aren kontrako txertoen eta gaixotasun horren in vitro diagnostikoak egiteko osasun-produktuen gaineko BEZari buruzko aldi baterako neurri dagokienez, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko. Halaber, % 0ko tasa



aplikatuko da produktu horiek garraiatzeko, biltegitratzeko eta banatzeko zerbitzuetan ere, horien erabileraren kostua txikiagoa izan dadin eta haien hedapena bermatu dadin. Subjektu pasiboen fakturazio-sistemak egokitzeko beharra saihesteko, eragiketa horiek salbuetsitako eragiketa gisa dokumentatuko dira fakturan. Hala eta guztiz ere, ehuneko zero zerga-tasa aplikatzeak ez du mugatzen eragiketa egiten duen subjektu pasiboak eskubidea izan dezala jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kenkarirako. Aurrekoarekin batera, eragiketa horien baliokidetasun-errekarguaren tasa ere doitzen da.

Amaitzeko, azken xedapenetako zortzigarrenean errege lege-dekretuaren erregelamendu bidezko garapena eta betearazpena arautzen dira; bederatzigarrenean, Estatuak arau hau emateko dauzkan eskumen-tituluak aipatzen dira; hamargarrenean, indarrean noiz jarriko den zehazten da.

Errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrietatik estatu-laguntzak direnei Europar Batasunak horretaz onartutako araudia aplikatuko zaie. Hain zuzen ere, araudi hori aplikatu behar den kasuetan, COVID-19 laguntzen aldi baterako esparrua eta Europako Batzordearen 2020ko apirilaren 2ko SA.56851 (2020/N) erabakiaren eta 2020ko apirilaren 24ko SA.57019 (2020/N) erabakiaren bidez onartutako aldi baterako esparru nazionala eta beren aldaketak aplikatuko dira.

## VI

Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presazko premia egonez gero». Neurri ekonomikoak errege lege-dekretuaren tresna erabiliz hartzearen alde egin du Konstituzio Auzitegiak, betiere esplizituki eta arrazoituta justifikatzen badira, bai premia —halakotzat hartuta abagune ekonomikoak erantzun azkarra eskatzen duela—, bai presa —halakotzat ulertuta dena delako neurria araubide arruntaren bidez izapidetu eta denboran atzeratzeak kalteren bat sor dezakeela—.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, zilegizko tresna da, baldin eta presako legegintza justifikatzen duen helburua honako hau bada: Gobernuaren helburuen barruan, egoera jakin bat diruz laguntzea, aurreikusteko zailak diren arrazoiak direla-eta berehala araugintza-ekintza bat egin behar bada, legeak Parlamentuan izapidetzeko bide normalak edo presako prozedurak eskatzen duena baino epe laburragoan, are gehiago prozedura hori Gobernuaren esku ez badago. Helburuak halakoa izan behar duela behin eta berriz galdegin du Konstituzio Auzitegiak, epai hauen bitartez: otsailaren 4ko 6/1983 epaia, 5. oinarria; urtarrilaren 17ko 11/2002 epaia, 4. oinarria; uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 3. oinarria, eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 3. oinarria.

Agerikoa da araugintzako tresna honetara jo behar dela, gure herrialdearen egoera oso larria baita nazioarteko osasun-larrialdiaren eraginez; izan ere, larrialdi horrek bultzatuta alarma-egoera deklaratu behar izan zen eta horren ondorioz herritarrek, langileek, enpresek eta sektore publikoak egin behar izan duten sakrifizioari erantzun gehigarria eman behar diote botere publikoek. Osasun-egoera oso azkar gaizkitu da eta bigarren kutsapen-olatu gertatu da. Horri aurre egiteko eta gaixotasunaren hedapena gelditzeko, osasun-neurri gehiago aplikatu behar izan dira. Neurri horiek behar-beharrezkoak dira osasun publikoa babesteko, baina eragin handia dute jarduera ekonomikoan, eta hori ere kontuan eduki behar da. Ekonomiaren egoera ahulari, bereziki turismoari, ostalaritzari eta merkataritzari loturiko ekonomiari dagokionez, orain, murrizketa berriak gehitu behar zaizkio, hain zuzen, kontsumo-patroiak eragiten dituztenak.

Sektore horiek hondatuko ez badira, ahalik azkarren esku hartu behar da haien bideragarritasuna ziurtatzeko. Horren ildotik, errege lege-dekretu honetan negozio-lokalen errentamenduez, zergez, gizarte segurantzaz, pizgarri erregionalak mantentzeaz edo turismo handiko eremuez proposatzen diren neurriak presaka ezarri behar dira autonomoen eta ETEen ekonomiak hondatuta gelditu ez daitezen pandemiari aurre egiteko neurrien ondorioz. Berehala onartu behar dira neurriak profesional eta enpresa horien diruzaintzako arazoak arintzeko eta lanpostu gehiago gal daitezen eragozteko.

Laburbilduz, egungo inguruabarretan Gobernuak ongi zehaztutako helburuak betetzeko balioko duen politika publikoa behar da, eta hori gauzatuko bada, ezinbestekoa da errege lege-dekretu hau ahalik azkarren onartzea, eta horregatik gertatzen da, hain zuzen, aparteko eta presazko beharrezana eta betetzen da judizio politikoaren edo egokitasun-judizioa, Gobernuari dagokiona (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: ekainaren 7ko 61/2018 epaia, 4. oinarri juridikoa; irailaren 11ko 142/2014 epaia, 3 oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan jarritz arreta.

Konstituzio Auzitegiak adierazi duen bezala, «gai bat erlatiboki edo modu absolutuan lege arrunt batez arautu beharrekoa izateak ez du *eo ipso* kentzen aparteko eta behin-behineko eran lege-dekretuz arautzea» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 60/1986 epaia, 2. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, 8. oinarri juridikoa; 100/2012 epaia, 9. oinarri juridikoa; martxoaren 1eko 35/2017 epaia, 5. oinarri juridikoa).

Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiek erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi inolaz ere konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: ekainaren 7ko 61/2018 epaia, 4. oinarri juridikoa; maiatzaren 8ko 100/2012 epaia, 8. oinarri juridikoa; abenduaren 13ko 237/2012 epaia, 4. oinarri juridikoa; otsailaren 14ko 39/2013 epaia, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azalduetako arrazoi guztiek erruz eta arrazoiz justifikatzen dute arau hau ezartzea (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 31ko 29/1982 epaia, 3. oinarri juridikoa; abenduaren 2ko 111/1983 epaia, 5. oinarri juridikoa; urriaren 20ko 182/1997 epaia, 3. oinarri juridikoa).

Era berean, errege lege-dekretuak ezartzen dituen neurriek ez diete kalterik egiten konstituzio-eskubideei eta Espainiako Konstituzioaren 33. eta 38. artikuluetan hurrenez hurren jasotako jabetza pribatuaren eta enpresa askearen funtsezko edukia errespetatzen dute. Neurri horiek bat datoz ezarrita dauden konstituzionaltasunaren parametroekin.

Aldaketak ordenamendu juridikoan txertatzeko errege lege-dekretua erabiltzea dela-eta bi gauza hartu behar dira kontuan: mota horretako araua erabiltzeko bidea ematen duten inguruabarrak, batetik, eta araugintzako tresna hori erabiliz arautu ezin diren gaiak, bestetik. Arautu ezin diren arloei dagokienez, hona zer ezartzen duen Konstituzioak 86.1 artikuluan: errege lege-dekretuek «ezin eragingo diete, ez Estatuaren funtsezko instituzioen ordenamenduari, ez I. tituluan araututako herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunei, ez autonomia-erkidegoen araubideari, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrari». Errege lege-dekretu honek ez du eraginik izango gai horietan.

Izan ere, arauan sartzen diren xedapenek ez dute ukitzen aurreko elementu horietako bakar bat ere muinean: ez da Estatu funtsezko erakunderik arautzen; ez da ukitzen herritarren eskubide eta betebeharren izaera; ez da autonomia-erkidegoen araubidearen gaineko eraginik sortuko, ez baitira horrentzat hemengo neurriak, eta hauteskunde-araubidearekin ere ez dago inolako loturarik. Beraz, xedapen horien edukian ez dago ezer haiek onartzea eragozten duenik puntu honetan.

Zehazki, eta zerga-arloko neurriei gagozkiela, Konstituzio Auzitegiak maiatzaren 8ko 100/2012 epaiak 9. oinarri juridikoan adierazi bezala, «zerga-arloa lege-erreserbaren printzipioaren mende egoteak (Espainiako Konstituzioaren 31.3 artikulua eta 133. artikuluen 1 eta 3 apartatuak) eta erreserba hori erlatiboa eta ez absolutua izateak ez du nahitaez esan nahi zerga-arloa lege-dekretuaren erregulazio-eremutik kanpo dagoenik, eta, hortaz, zerga-arloa hor sartu ahal izango da, baldin eta Konstituzioan kasu horietarako ezarritako baldintzak betetzen badira eta kanpoan utzitako gaiei terminoaren zentzu konstituzionalean «eragiten» ez bazaie» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: urriaren 28ko 182/1997 epaia, 8. oinarri juridikoa; uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 6. oinarri juridikoa; ekainaren 30eko 108/2004 epaia, 7. oinarri juridikoa; abenduaren 16ko 245/2004 epaia, 4. oinarri juridikoa; eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 7. oinarri juridikoa).

Eta, horri dagokienez, Konstituzioaren I. tituluen bigarren kapituluko 2. atalean, «Herritarren eskubideak eta betebeharrak» izenburupean, Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua «benetako agindu juridikoa» ezartzen du, «eskubide eta betebeharren iturria dena», eta, haren arabera, «herritarrek, zergen bidez, gastu publikoei aurre egiten edo

horiek finantzatzen lagundu behar dute» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: urriaren 28ko 182/1997 epaia, 6. oinarri juridikoa; abenduaren 16ko 245/2004 epaia, 5. oinarri juridikoa, eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 7. oinarri juridikoa). Ondorioz, «lege-dekretuak ukitu ezin dituen betebeharrak bat da Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikuluan aipatzen den gastu publikoei eusten laguntzeko betebeharra» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 6. oinarri juridikoa; abenduaren 16ko 245/2004 epaia, 5. oinarri juridikoa, eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 7. oinarri juridikoa) (...).

Bada, Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua «ahalmen ekonomikoaren irizpidearekin lotzen du laguntzeko betebeharrak hori», eta, era berean, «zerga-sistema osoarekin» lotzen du, «ez edozein tributu-figurarekin zehazki». Beraz, argi geratzen da, «lege-dekretuak ezin izango ditu aldatu ez araubide orokorra eta ez zerga-kargaren zehaztapenean eragina duten funtsezko elementuak eta, horrela, ezin izango du ukitu gastu publikoei bakoitzaren aberastasunaren arabera eta zerga-sistema zuzen baten bidez eusten laguntzeko betebeharrak orokorra» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: urriaren 18ko 182/1997 epaia, 7. oinarri juridikoa; uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 6. oinarri juridikoa; ekainaren 30eko 108/2004 epaia, 7. oinarri juridikoa, eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 7. oinarri juridikoa). Hala, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua urratuko du «edozein esku-hartzek edo arau-berrikuntzak, baldin eta, duen garrantzi kualitatibo edo kuantitatiboagatik, nabarmen aldatzen badu bere ahalmen ekonomikoaren arabera laguntzera behartuta dagoen zergapekoak zerga-sisteman duen posizioa» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: urriaren 28ko 182/1997 epaia, 7. oinarri juridikoa; uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 6. oinarri juridikoa; ekainaren 30eko 108/2004 epaia, 7. oinarri juridikoa, eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 7. oinarri juridikoa). Beraz, kontuan hartu beharko da «kasu bakoitzean zer zergatan duen eragina errege lege-dekretuak —zerga-sistema osoan zer izaera, egitura eta funtzio dauzkan zehaztuta, bai eta gaitasun ekonomikoaren printzipioa zenbateraino edo zer neurritan betetzen den ere—, zergaren zer osagai —funtsezkoak zein ez— aldatzen dituen araugintza-modu berezi honek eta, azken batean, zein den dena delako arauaren izaera eta irismena» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: urriaren 28ko 182/1997 epaia, 7. oinarri juridikoa; uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 6. oinarri juridikoa; ekainaren 30eko 108/2004 epaia, 7. oinarri juridikoa, eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 7. oinarri juridikoa)».

Gogoeta horiek kontuan hartuta, esan daiteke errege lege-dekretu honetan jasotako zerga-neurriek ez dutela urratzen Konstituzioaren 31. artikulua; izan ere, lehen aipatutako 100/2012 epai horretan adierazten den bezala (9. oinarri juridikoa), «ez dute nabarmen aldatzen zergadunek jasan behar duten presio fiskala, eta, ondorioz, ez dute funtsezko aldaketarik eragin herritarrek zerga-sistema osoan duten posizioan, eta, beraz, ez dute ukitu Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua adierazten duen gastu publikoei eusten laguntzeko betebeharrak konstituzionalaren funtsa» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 7. oinarri juridikoa, eta ekainaren 30eko 108/2004 epaia, 8. oinarri juridikoa).

Hemen ezartzen diren zergen arloko neurriek zehatz-mehatz betetzen dituzte aurrean aipatutako jurisprudentziak jasotzen dituen konstituzio-eskakizunak.

## VII

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, errege lege-dekretu hau erregulazio onaren printzipioei egokitzen zaie.

Beraz, premiaren eta eraginkortasunaren printzipioekin bat etorriz, ekimenaren oinarria interes orokorra da: SARS-CoV-2ak ekarri duen osasun-krisialdiaren ondoriozko ezohiko inguruabar sozialei eta ekonomikoei aurre egitea. Bada, oraintxe dugu denbora neurri gehiago ezartzeko beharizan horiek asetzeko, eta horretarako tresnarik egokiena errege lege-dekretua da.

Araua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin; izan ere, herritar guztien eta, bereziki, langileen ongizatea bermatzeko eta gaur egungo salbuespenezko egoeraren aurrean jarduera ekonomikoan duen eragina gutxitzeko ezinbesteko erregulazioa jasotzen du.

Halaber, bat dator segurtasun juridikoaren printzipioarekin: koherentea da Europar Batasuneko Zuzenbidearekin eta gainerako ordenamendu juridikoarekin, eta politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariei lotzen zaie.

Gardentasun-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honetan argiro azaltzen dira helburuak eta ez da beharrezkoa aurretik kontsulta publikoa egitea, eta entzunaldi-izapidea eta informazio publikoaren izapidea ere ez dira behar, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.11 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritz.

Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honek ez du administrazio-kargarik ezartzen.

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 7., 8., 13., 14. eta 17. puntuen babespean ematen da, zeinek honako hauek arautzeko eskumena ematen baitiote Estatuari: konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzak; lan-arloko legeria, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek betearaztea; legeria zibila, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek zuzenbide zibil, foru-zuzenbide edo zuzenbide bereziak —halakorik dagoen lekuetan— gorde, aldatu eta garatzeko dituzten eskumenak; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; Estatuaren ogasun publikoa eta zorra; Gizarte Segurantzaren arloko oinarrizko legeria eta ekonomia-araubidea, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek gauzatzea haren zerbitzuak. Horrez gainera, Espainiako Konstituzioaren 149.2 artikulua xedatzen duenaren babespean ere ematen da, zeinaren arabera, Estatuak betebeharrak eta funtsezko eskumenezat jo dezake kulturaren zerbitzua, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek horren gaineko eskumenak hartzea.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua emandako baimena baliatuz, Industria, Merkataritza eta Turismo ministroak, Ogasuneko ministroak, Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroak eta Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroak egindako proposamenari jarraikiz, eta Ministro Kontseiluak 2020ko abenduaren 22ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

### Negozio-lokalen errentamenduaren inguruko neurriak

1. artikulua. *Etxebizitza-erabileraz besteko erabilerarako errentamenduak edukitzea handiekin.*

1. Baldin eta alderdiak errentaren aldi bateko murrizketarako edo haren luzamendurako adostasunera heldu ez badira, eta errentatzailea enpresa edo entitate publikoa edo edukitzea handia bada, halakotzat harturik 10 hiri-higiezin —garajeak eta trastelekuak kanpo— baino gehiago dituen edo 1.500 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera eraikia duen pertsona fisiko edo juridikoa, Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 3. artikuluaekin bat etxebizitza-erabileraz besteko erabilerarako edo industria erabilerarako errentamendu kontratuko errentaria den pertsona fisiko edo juridikoa, errege lege-dekretu honen 3. artikulua xedatutakoa betetzen badu, alternatiba hauetako bat eskatu ahal du 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen:

a) Errentamenduaren errentaren zenbatekoa % 50 murrizteko, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaz deklaratu zen alarma-egoera eta beraren luzapenak indarrean dauden artean; ondoko lau hiletan ere luzatu ahal izango da gehienez. Errege-dekretu

horren bidez alarma-egoera deklaratu zen SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

b) Errenta-ordainketaren luzamendua, zeina aplikatuko baita urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaz deklaraturako alarma-egoera eta beraren luzapenak indarrean dauden artean; ondoko lau hiletan ere luzatu ahal izango da gehienez. Errenta-ordainketa 3. apartatuan aipatzen den epealdia amaitu ondoko hiletik aurrera geroratuko da, eta ez du zehapenik edo interesik sortuko. Geroratutako errenta-ordainketak bi urtez egin ahal izango dira luzamendua amaitu ondoren, betiere, errentamenduaren kontratua edo beraren luzapenen bat indarrean dagoen bitartean. Geroratutako zenbatekoak modu proportzionalean banatuko dira bi urteko aldi horretan.

2. Baldin eta errentamenduaren kontratuan ezartzen bada errentamendu-errentaz gainera mantentze-zerbitzuaren gastuak edo bestelako batzuk ere, errentariarentzat onuragarriak direnak, ordaindu beharko direla, gastu arrunt horiei ezin izango zaizkie aplikatu aurreko apartatuan ezartzen diren neurriak.

3. Errentatzaileak berariaz adieraziko dio bere erabakia errentariari honek eskabidea baliabide fede-emaileaz aurkezten duenetik zazpi egun baliadun igaro baino lehen. Epealdi hori amaitu ondoko lehen hileko errentatik aurrera automatikoki aplikatuko da 1. apartatuko a eta b letretako neurrietatik errentatzaileak hautatutakoa. Bestela, epealdiaren barruan erabakia berariaz jakinarazi ezean, errentariak eskatutako neurria aplikatuko da.

4. Alderdiak adosten badute errenta murriztea edo horren ordainketari luzamendua aplikatzea, baina bakarrik urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaz deklaraturako alarma-egoeraren eta haren luzapenetako aldi bati, eta, gehienez ere, alarma-egoeraren azken luzapena amaitu ondoko lau hiletan, artikuluko honen 1. eta 2. apartatuak ere aplikatuko dira; hala ere, 1. apartatuan ezartzen den neurria alderdien arteko akordiotik kanpo dagoen aldiaren soilik aplikatuko da.

2. artikulua. *Etxebizitza-erabileraz besteko erabilerarako beste errentamendu batzuk.*

1. Azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, etxebizitza-erabileraz besteko erabilera baterako edo industria-erabilerarako errentamendu-kontratu baten errentaria den pertsona fisiko edo juridikoak 3. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen baditu, eta errentatzailea 1. artikuluan zehazten direnetakoa ez bada, errentatzaileari aldi batez errenta-ordainketaren aparteko geroratzea eskatu ahal izango dio 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen, baldin eta geroratze hori edo errentaren murrizketa ez bada jada bi alderdien borondatez adostu.

2. Aurreko apartatuan aipatutako akordioaren esparruan bakarrik, alderdiak askatasunez baliatu ahal izango dute azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako fidantza, errentamendu-errentaren hileko bat edo batzuk osorik edo zati batean ordaintzeko balio dezakeena. Fidantza osoa edo zati bat baliatuz gero, errentariak jarritako fidantzaren zenbatekoa berrezarri beharko du urtebeteko epean, akordioa egiten denetik zenbatzen hasita, edo, epe hori urtebetetik beherakoa bada, kontratuaren indarraldiari geratzen zaion epean.

3. artikulua. *Errentari diren langile autonomoek eta ETEek 1. eta 2. artikuluetako ondorioetarako bete beharreko baldintzak.*

Ondasun higiezinaren etxebizitza-erabileraz besteko erabilerarako errentatuta duten langile autonomoek eta ETEek 1. eta 2. artikuluetan ezartzen diren neurriak baliatu ahal izango dituzte, baldintza hauek betez gero:

1. Langile autonomo batek garatzen duen jarduera ekonomikoari atxikitako higiezin baten errentamendu-kontratuaren kasuan:

a) Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma-egoera deklaratu zen egunean afiliatuta eta alta-egoeran egotea Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Gizarte



Segurantzako Araubide Berezian edo, bestela, Langile Autonomoen Araubide Bereziaren onerako mutualitateetako batean.

b) Haren jarduera etenda geratu izana urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua indarrean jartzearen ondorioz, edo agintari eskudunak eta agintari eskudunek aipatutako errege-dekretuaren babesean emandako aginduen ondorioz.

c) Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua indarrean jartzearen ondorioz jarduera zuzenean eteten ez bada, egiaztatu beharko da geroratzea edo murrizketa eskatzen den hilabete naturalaren aurreko fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu dela, hilabete horri dagokion aurreko urteko hiruhilekoaren batez besteko fakturazioarekin alderatuta.

2. Enpresa txiki edo ertain batek garatzen duen jarduera ekonomikoari atxikitako higiezin baten errentamendu-kontratuaren kasuan:

a) Ez gaintzea uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 257.1 artikuluan ezarritako mugak.

b) Haren jarduera etenda geratu izana urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua indarrean jartzearen ondorioz, edo agintari eskudunak eta agintari eskudunek aipatutako errege-dekretuaren babesean emandako aginduen ondorioz.

c) Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuan ezarritakoaren indarrez jarduera zuzenean eteten ez bada, egiaztatu beharko da geroratzea edo murrizketa eskatzen den hilabete naturalaren aurreko fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu dela, hilabete horri dagokion aurreko urteko hiruhilekoaren batez besteko fakturazioarekin alderatuta.

4. artikulua. *Betebeharrak nola egiaztatu.*

Errentariak errentatzailearen aurrean egiaztatuko du aurreko artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen dituela agiri hauek aurkeztuta:

a) Jardueraren murrizketa, hasiera batean, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da. Bertan, kontabilitateko eta sarrera eta gastuei buruzko informazioan oinarrituta, hileko fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu dela adieraziko da, aurreko urteko hiruhileko bereko hileko batez besteko fakturazioarekin alderatuta. Edozein kasutan ere, errentatzaileak hala eskatzen duenean, errentariak bere kontabilitate-liburuak erakutsi beharko dizkio errentatzaileari, jardueraren murrizketa egiaztatzeko.

b) Jardueraren etendura frogatzeko, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 17. artikuluan arautzen duen jardueraren aparteko uztea izapidetzeko eskumena daukan erakundeak interesdunaren jarduerazuzteari buruzko adierazpenean oinarrituta egiten duen ziurtagiria beharko da. Errege-dekretu horren bidez, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriak hartu ziren.

5. artikulua. *Errentaren murrizketa eta aldi batez haren ordainketaren aparteko geroratzea bidegabe aplikatzearen ondorioak.*

3. artikuluan ezarritako betebeharrak bete gabe aldi batez errenta-ordainketaren aparteko geroratzearen onuradun izan diren errentariak izango dira sortutako kalte-galeren erantzule, bai eta salbuespenezko neurri horiek aplikatzeak eragindako gastu guztien erantzule ere, neurri horien jokabideak eragin ditzakeen bestelako erantzukizunei kalterik egin gabe.

6. artikulua. *Hartzekodunen konkurtsoan dauden errentariak neurriaren aplikaziotik salbuestea.*

1. Ez da aplikatuko 1. artikuluan xedatzen dena kasu hauetan: errentaria hartzekodunen konkurtsoan dagoenean; artikulua horretan ezartzen diren neurrien ondorioz errentatzaileak kaudimenik ez edukitzea edo horretara iristeko arriskua egotea, 1/2020

Legegintzako Errege Dekretuak ezartzen duenarekin bat etorritik (1/2020 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 5koa, Konkurtsoen Legearen testu bategina onartzen duena).

2. Errentari batek 6. artikulua aplika dakion nahi badu, bertan aipatzen diren egoeretako batean dagoela egiaztatu beharko du.

## II. KAPITULUA

### Lanaren arloko eta gizarte segurantzako laguntza-neurriak

7. artikulua. *Kotizazioen inguruko aparteko neurriak, turismoaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren arloetako jarduera batzuetarako 2021eko urtarrilaren 31ra arte automatikoki luzatutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteekin lotutakoak.*

1. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarritutako enplegu-erregulazioko espedientea eduki duten enpresa batzuei espedientea berez luzatu zaie 2021eko urtarrilaren 31ra arte Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 1. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik. Bada, enpresa horietatik Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN-09) 4634 (Edarien handizkako merkataritza), 5610 (Jatetxeak eta janari postuak), 5630 (Edari establezimenduak), 9104 (Lorategi botanikoetako, parke zoologikoetako eta natura-erreserbetako jarduerak) eta 9200 (Zorizko jokoen eta apustuen arloko jarduerak) kodeetako jardueraren bat egiten dutenek ez dute ordaindu beharko Gizarte Segurantzaren enpresa-ekarpena, ez baterako bilketako kontzeptuen kopuruak ere, espediente horien eraginpeko langileei dagokienez, bi kasu hauetan: langile horiek 2020ko abenduaren 1ean berriz lanean hasi badira edo Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jarri ondoren —4.2.a) artikuluan ezartzen denaren arabera—, hil horretan lan egindako aldiengatik eta lan saio-ehunekoengatik, eta 2020ko abenduan edo 2021eko urtarrilean jarduera etenda duten langileei dagokienez, etenduraren eraginpeko aldiengatik eta lan saio-ehunekoengatik.

2. Salbuespen horretarako jarraian azalduko diren ehunekoak eta baldintzak aplikatuko dira:

a) 2020ko abenduan eta 2021eko urtarrilean sortutako enpresa-ekarpenaren % 85, baldin eta enpresak 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile (edo langileekin parekatutako pertsona) baino gutxiago eduki baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

b) 2020ko abenduan eta 2021eko urtarrilean sortutako enpresa-ekarpenaren % 75, baldin eta enpresak 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile (edo langileekin parekatutako pertsona) edo gehiago eduki baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

3. Artikulu honetan arautzen den salbuespena ezin da bateratu irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak 2. artikuluan arautzen dituen neurriekin.

Horrez gainera, errege lege-dekretu horren 2. artikulua 3., 4., 5., 6. eta 7. apartatuetan salbuespenen aplikazioaz, kontrolaz, ondorioez, finantzaketaz eta irismenaz xedatzen dena aplikatuko da, eta errege lege-dekretu horren 4. artikulutik 7.era bitartekoetan dibidenduen banaketarekin eta gardentasun fiskalarekin lotutako mugez, enpleguaren babesaz, enplegua babesteko aparteko neurriez, aldi baterako lan-kontratuen gehieneko iraunaldiaren zenbaketa eteteaz, aparteko orduz eta jardueraren kanporatze berriez ezartzen dena ere bai.

4. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, enpresaren jardueraren sailkapenaren kodea (EJSN-09) aplikatuko da lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kontingentziak estaltzeko kotizazio-tasa zehazteko, 2020ko irailean aurkeztutako likidazioei dagokienez, eta Estatuaren 2007ko Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezartzen denarekin bat etorritik.

## III. KAPITULUA

## Zergen arloko neurriak

8. artikulua. *Zerga-zorrrak geroratzea.*

1. Estatuko Zerga Administrazioaren eskumenen esparruan, Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 65. artikuluan aipatzen diren geroratzeen ondorioetarako, zerga-zorrraren sarrera geroratzea onartuko da, 2021eko apirilaren 1etik 30era arte (biak barne) aurkezteko eta ordaintzeko epea amaitzen zaien aitorten-likidazio eta autolikidazio guztiei dagokienez, baldin eta data horretara arte aurkeztutako eskabideek lege horren 82.2.a) artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

2. Geroratze hori Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 65.2 artikulua b), f) eta g) letretan aipatzen diren zerga-zorrei ere aplikatuko zaie.

3. Geroratzea onartzeko ezinbesteko baldintza izango da 2020an zorduna 6.010.121,04 eurotik beherako eragiketa-bolumena duen pertsona edo entitatea izatea.

4. Zorra geroratzeko baldintzak hauek izango dira:

a) Epea sei hilabetekoa izango da.

b) Ez da berandutze-interesik sortuko geroratzearen lehenengo hiru hilabeteetan.

9. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoaren bidez kalkulaturako etekin garbia eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuan egindako eragiketa arrunten kuota murriztea 2020. urtean.*

1. Azaroaren 22ko HAC/1164/2019 Aginduak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboa egiteko metodoa eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztua garatzen ditu 2020. urterako. Horren lehenengo xedapen gehigarrian arautzen den murrizketa honelakoa izango da:

a) Jarduera hauetan, % 20:

EJZ	Jarduera ekonomikoa
0 atala	Abeltzaintza independentea.
–	Ganadua hazi, gorde eta gizentzeko zerbitzuak.
–	Nekazari eta abeltzainek egindako beste lan, zerbitzu eta jarduera osagarri batzuk, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan sartzen ez direnak.
–	Basoko jardueren titularrek egindako beste lan, zerbitzu eta jarduera osagarri batzuk, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan sartzen ez direnak.
–	Partzuergo erregimenaren barruan egindako nekazaritza-jardueren lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.
–	Partzuergo erregimenaren barruan egindako basogintza-jardueren lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.
–	Produktu naturalak, eta landare- eta animalia-jatorrikoak eraldatu, landu edo manufacturatzeko prozesuak, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetako industria-jarduerak epigrafean alta emanda egotea eskatzen dutenak, eta produktu natural horiek hornitzen dituzten ustiatagietako titularrek beraiek zuzenean burutzen dituztenak.
–	Nekazaritza- edo abeltzaintza-jarduera, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barruan egon daitekeena.
–	Basogintza-jarduera, balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziaren barnean egon daitekeena.
–	Muskuilu-hazkuntza batean.
419.1	Ogi- eta opil-industriak.

EJZ	Jarduera ekonomikoa
419.2	Opil-, gozoki- eta galleta-industriak.
419.3	Ore frijituen industriak.
423.9	Patata frijitu, krispeta eta antzekoak egitea.
641	Fruituen, barazkien, ortuarien eta tuberkuluaren txikizkako merkataritza.
642.1, 2, 3 eta 4	Haragiaren eta hondakinen eta prestatutako haragi-produktuen eta haragi-deribatuen txikizkako merkataritza (barrukiak izan ezik).
642.5	Arrautzen, hegaztien, abeletzeko untzien, ehizakien eta horien ekoizkin eratorrien txikizkako merkataritza.
642.6	Barruki-dendatan egiten den giza-kontsumorako animalien errai eta barruki fresko eta izoztuen txikizkako merkataritza.
643.1 eta 2	Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.
644.1	Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen, eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.
644.2	Okindegiak, eta ogi berezien eta opilen salmentarako dendak.
644.3	Gozogintzako, opilgintzako eta konfitegintzako ekoizkinen txikizkako merkataritza.
644.6	Ore frijituen —estaliak edo barrubeteak nahiz estali edo barrubete gabeak— patata frijituen, janurrekoen, fruitu lehorren, gozokien, txokolatzeko prestakinen eta edari freskagarrien txikizkako merkataritza.
647.1	Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, saltzailearen establezimenduetan.
647.2 eta 3	Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, saltzeko gelak 400 metro koadro baino gutxiagoko azalera duenean.
659.4	Bide publikoetan dauden kioskoetan prentsa, aldizkariak eta liburuak txikizka saltzea.
691.1	Etxeko tresna elektrikoak konpontzea.
691.2	Automobil, txirringa eta bestelako ibilgailuak konpontzea.
691.9	Oinetakoak konpontzea.
691.9	Beste inon sailkatu gabeko beste kontsumo gai batzuk konpontzea (oinetakoaren konponketa eta artelanak, altzariak, zaharkinak eta musika tresnak zaharberritzea izan ezik).
692	Industriako makineria konpontzea.
699	Beste inon sailkatu gabeko konponketak.
721.2	Autotaxi bidezko garraioa.
722	Salgaiak errepidez garraiatzea.
751.5	Ibilgailuak koipeztatu eta garbitzea.
757	Mudantza zerbitzuak.
849.5	Mezularitza eta mandataritza, norberaren garraibideekin soilik eginez gero.
933.1	Lurreko eta uretako ibilgailuak eta ibilgailu aeronautikoak, eta abar gidatzen irakastea.
933.9	Irakaskuntzako beste jarduerak batzuk, hala nola hizkuntzak, ebaketa eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketak eta oposaketak prestatzea eta beste inon sailkatu gabeko antzekoak.
967.2	Kirol arloko perfektionamendu eskolak eta zerbitzuak.
971.1	Egindako arropak eta jantziak eta erabilitako etxeko artikulak tindatzea, lehorrean garbitzea, garbitzea eta lisatzea.
972.1	Emakumeentzako eta gizonentzako ileapaindegi zerbitzuak.

EJZ	Jarduera ekonomikoa
972.2	Apainketarako areto eta institutuak.
973.3	Fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiatzeko zerbitzuak.

b) Jarduera hauetan, % 35:

EJZ	Jarduera ekonomikoa
651.1	Ehunkien, etxerako jantzien, alfonbren eta antzekoen, eta tapizgintza-gaien txikizkako merkataritza.
651.2	Gorputzerako nahiz bururako mota guztietako jantzien txikizkako merkataritza.
651.3 eta 5	Lentzeriaren, kortseteriaren eta jantzi berezien txikizkako merkataritza.
651.4	Mertzeriako eta paketeriako gaien txikizkako merkataritza.
651.6	Zapaten, larruzko eta imitaziozko produktuen nahiz ordezeko produktuen, gerrikoen, diru-zorroen, poltsen, maleten eta, oro har, bidaiatzeko gaien txikizkako merkataritza.
652.2 eta 3	Drogeriako, lurrin-dendako, kosmetikako eta garbiketako produktuen, eta pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste produktu batzuen txikizkako merkataritza, bai eta kimikako produktuen eta higienerako eta norberaren garbitasunerako gaien txikizkako merkataritza ere.
653.1	Altzarien txikizkako merkataritza.
653.2	Material eta aparatu elektrikoaren, elektronikoaren eta etxetresna elektrikoaren, argindarra ez beste energia mota batez eragiten diren etxe erabilerako bestelako aparatuen eta sukaldeko altzarien txikizkako merkataritza.
653.3	Etxeko hornidurarako, burdindegiko, apaindurako, oparitarako edo erakartzeko gaien txikizkako merkataritza (imitaziozko bitxiak eta etxetresna elektriko txikiak barne).
653.4 eta 5	Eraikuntzarako materialen, saneamendurako gaien eta altzarien, ateen, leihoen, pertsianen eta abarren txikizkako merkataritza.
653.9	Beste inon sailkatu gabeko etxeko ekipamendurako gaien txikizkako merkataritza.
654.2	Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordezeko piezen txikizkako merkataritza.
654.5	Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikoak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).
654.6	Mota guztietako ibilgailuen gurril-azalen, banden edo bandajeen eta aire-ganberen txikizkako merkataritza. Kanpo geratzen da aipatu artikuluen handizkako salmenta.
659.2	Bulegoko altzarien eta bulegoko makina eta ekipoen txikizkako merkataritza.
659.3	Aparatu mediko, ortopediko, optiko eta argazkigintzako txikizkako merkataritza.
659.4	Liburuen, egunkarien, paperezko eta bulegoko gaien, eta marrazketa eta arte ederretako gaien txikizkako merkataritza, bide publikoetan dauden kioskoetan egiten dena izan ezik.
659.6	Jostailuen, kiroleko gaien, kirol arroparen, zapaten eta buruko apaingarrien, armen, kartutxoaren eta pirotekniako gaien txikizkako merkataritza.
659.7	Hazien, ongarrien, lore eta landareen nahiz animalia txikien txikizkako merkataritza.
662.2	661. taldean eta 662.1 epigrafean zehazten ez diren establezimenduetan egiten den mota guztietako gaien (jangaia eta edariak barne) txikizkako merkataritza.
663.1	Janarien txikizkako merkataritza (edariak eta izozkiak barne) merkataritzako establezimenduetatik kanpo.
663.2	Ehunkien eta jantzi-gaien txikizkako merkataritza merkataritzako establezimendu finkoetatik kanpo.
663.3	Oinetakoaren, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza merkataritzako establezimendu finkoetatik kanpo.



EJZ	Jarduera ekonomikoa
663.4	Drogeriako gaien, kosmetikoen eta denetariko produktu kimikoen txikizkako merkataritza, merkataritzako establezimendu finkoetatik kanpo.
663.9	Beste inon sailkatu gabeko salgaien txikizkako merkataritza, merkataritzako establezimendu finkoetatik kanpo.
671.4	Bi sardexkako jatetxeak.
671.5	Sardexka bakarreko jatetxeak.
672.1, 2 eta 3	Kafetegiak.
673.1	Kategoria bereziko kafe-etxe eta tabernak.
673.2	Beste kafe-etxe eta taberna batzuk.
675	Kiosko, barraka eta antzeko beste lokal batzuen eskaintzen diren zerbitzuak.
676	Txokolategi, izozkitegi eta hortxata-dendetan eskaintzen diren zerbitzuak.
681	Izar bateko edo biko hotel eta moteletako ostatu zerbitzua.
682	Ostatuetako eta pentsioetako ostatu zerbitzua.
683	Arroztegi eta apopilo etxeetako ostatu zerbitzua.
721.1 eta 3	Hiri-garraio kolektiboa eta bidaiarien errepidezko garraioa.

2. Aurreko apartatuan ezartzen den murrizketaren zenbatekoa kontuan edukiko da etekin garbia kalkulatzeko 2020ko ekitaldiko laugarren ordainketa zatikatua egin behar denean.

3. 2021eko ekitaldiko lehenengo ordainketa zatikatua kalkulatzeko, azaroaren 25eko HAC/1155/2020 Aginduak lehenengo xedapen gehigarrian jasotzen duen murrizketa 1. apartatuan aurreikusitakoa izango da; agindu horrek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboa egiteko metodoa eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztua garatzen ditu 2021. urterako.

4. Balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboek azaroaren 22ko HAC/1164/2019 Aginduaren II. eranskinetako enpresa-jarduera edo jarduera profesional bat egiten badute eta araubide berezi erraztuari heldu badiote, araubide horretako urteko kuota kalkulatzeko, % 20 murriztu ahal izango dute dagokion urtean jarduera horretan egindako eragiketa arruntek sortutako kuoten zenbatekoa.

Murrizketa % 35ekoa izango da jarduera hauetan:

EJZ	Jarduera ekonomikoa
653.2	Material eta aparatu elektrikoaren, elektronikoaren eta etxetresna elektrikoaren, argindarra ez beste energia mota batez eragiten diren etxe erabilerako bestelako aparatuen eta sukaldeko altzarien txikizkako merkataritza.
653.4 eta 5	Eraikuntzarako materialak, saneamendurako gaien eta altzarien, ateen, leihoen, pertsianen eta abarren txikizkako merkataritza.
654.2	Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordezkio piezen txikizkako merkataritza.
654.5	Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikoak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).
654.6	Mota guztietako ibilgailuen gurrpil-azalen, banden edo bandajeen eta aire-ganberen txikizkako merkataritza.
659.3	659.3 epigrafean matrikulatutako txikizkako merkataria, negatiboak eta bestelako argazkigintzako materiala jaso, eta ondoren hirugarrenen laborategietan prozesatu eta dagokion kopia eta handitzeak entregatzeko zerbitzuagatik.

EJZ	Jarduera ekonomikoa
663.1	Merkataritza establezimendu finko batetik kanpo txikizka eta era eskusiboan saltzea: estalgarri edo betegarriekin nahiz horiek gabe egindako masa frijituak, patata frijituak, aperitiboak, fruitu lehorrak, gozokiak, txokolatea eta edari freskagarriak; gainera, baimena edukita txurro-dendako berezko produktuak nahiz patata frijituak egiteko instalazioan edo ibilgailuan bertan.
671.4	Bi sardexkako jatetxeak.
671.5	Sardexka bakarrekako jatetxeak.
672.1, 2 eta 3	Kafetegiak.
673.1	Kategoria bereziko kafe-etxe eta tabernak.
673.2	Beste kafe-etxe eta taberna batzuk.
675	Kiosko, barraka eta antzeko beste lokal batzuetan eskaintzen diren zerbitzuak.
676	Txokolategi, izozkitegi eta hortxata-dendetan eskaintzen diren zerbitzuak.
681	Izar bateko edo biko hotel eta moteletako ostatu zerbitzua.
682	Ostatuetako eta pentsioetako ostatu zerbitzua.
683	Arroztegi eta apopilo etxeetako ostatu zerbitzua.
721.1 eta 3	Hiri-garraio kolektiboa eta bidaiarien errepidezko garraioa.

5. Aurreko apartatuan aipatzen diren enpresaburuek eta profesionalak % 20 edo % 35 murriztu ahal izango dituzte honako hauek 2021eko ekitaldiko lehen hiruhilekoko kuotaren kontura egin beharreko diru-sarrerara kalkulatzeko: azaroaren 25eko HAC/1155/2020 Aginduaren II. eranskineko balio erantsiaren gaineko zergaren indizeen eta moduluen aplikaziorako jarraibideen 3. zenbakian adierazten diren ehunekoak.

10. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoari 2020 eta 2021 ekitaldietan uko egiteak eragingo duen zergaldi kopurua murriztea.*

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun batek garatzen duen jarduera ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren arabera zehazten bada, 2020ko ekitaldirako uko egin diolako zenbatespen objektiboaren metodoari, martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 33. artikuluan 1. apartatuaren b) letran arautzen den bezala, edo zentsu-adierazpena aurkezteko momentuan horrela adierazten duelako —jarduerari ekin badio 2020ko apirilaren 1etik aurrera—, 2021eko edo 2022ko ekitaldian berriz ere zenbatespen objektiboaren metodoaren arabera kalkulatu ahal izango du jarduera ekonomikoaren etekin garbia, baldin eta hori aplikatzeko baldintzak betetzen baditu eta zenbatespen objektiboaren metodoaren ukoa ezeztatzen badu horretarako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 33. artikuluan 1. apartatuaren a) letran ezartzen den epealdian, edo 2021eko edo 2022ko ekitaldiko lehen hiruhilekoko ordainketa zatikatuaren aitortpena epealdiaren barruan eta zenbatespen objektiboaren metodorako xedatutako moduan aurkezten badu.

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun batek garatzen duen jarduera ekonomikoaren etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren arabera zehazten bada eta berak uko egiten badio 2021eko ekitaldian metodo hori aplikatzeari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 33. artikuluan 1. apartatuan arautzen den bezala, 2022ko ekitaldian jarduera ekonomikoaren etekin garbia berriz ere zenbatespen objektiboaren metodoaren arabera kalkulatzeko hautatu ahal izango du, baldin eta hori aplikatzeko baldintzak betetzen baditu eta zenbatespen objektiboaren

metodoaren ukoa ezeztatzen badu horretarako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 33. artikuluan 1. apartatuaren a) letran ezartzen den epealdian, edo 2022ko ekitaldiko lehen hiruhilekoko ordainketa zatikatuaren aitortpena epealdiaren barruan eta zenbatespen objektiboaren metodorako xedatutako moduan aurkezten badu.

3. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoari uko egiteak eta aurreko paragrafoetan aurreikusitako ondoko ezeztapenak ondorio berberak izango dituzte balio erantsiaren gaineko zergaren edo Kanarietako zeharkako zerga orokorrean ezarritako araubide berezietan dagokienez.

11. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoarekin bat zehaztutako urteko etekinean eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuan egindako eragiketa arruntek sortutako kuotaren kalkuluetan 2020. urtean deklaraturako alarma-egoerek eduki duten eragina.*

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zeinuak, indizeak edo moduluak aplikatzeko jarraibideen 7. zenbakian ezartzen denaren ondorioetarako eta azaroaren 22ko HAC/1164/2019 Aginduaren II. eranskineko balio erantsiaren gaineko zergaren indizeak eta moduluak aplikatzeko jarraibideen 8. eta 9. zenbakietan ezartzen denaren ondorioetarako, inolaz ere ez dira zenbatuko jarduera-aldiztat 2020ko lehen seihilekokoan alarma-egoera indarrean egon zen egun kopurua, ez eta 2020ko bigarren seihilekokoan, alarma-egoera indarrean egon zein ez, SARS-CoV-2aren epidemiaren bilakaerari aurre egiteko agintaritzak eskudunak ezarritako neurrien ondorioz jarduera ekonomikoa etenda egon den egun kopurua ere.

Hain zuzen ere, «soldatapeko langileak», «soldatarik gabeko langileak» eta «enplegatuak» moduluak zenbatzeko ez dira kontuan edukiko lan egindako ordu modura aurreko paragrafoan aipatzen diren egunak. Halaber, «egindako distantzia» eta «energia elektrikoaren kontsumoa» moduluak zenbatzeko ez dira kontuan hartuko lehen paragrafoan aipatzen diren egunetan egindako kilometroak, ez egun horiei dagozkien kilowatt-orduen kopuru proportzionala.

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek azaroaren 22ko HAC/1164/2019 Aginduaren II. eranskinean aipatzen diren jardueretako bat egiten badute eta horren etekin garbia kalkulatzeko zenbatespen objektiboaren metodoa erabiltzen badute, 2020ko laugarren hiruhilekoko ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatu behar dutenean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 110. artikuluan 1. apartatuaren b) letran aipatzen diren oinarri-datuaren arabera, inolaz ere ez dituzte zenbatuko jarduera-eguntzat SARS-CoV-2aren ondoriozko egoera epidemiologikoaren bilakaerari aurre egiteko agintaritzak eskudunak ezarritako neurrien ondorioz jarduera ekonomikoa etenda egon den egutegiko egunak.

12. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoari eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuari eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide bereziari uko egiteko eta uko-egite haiek ezeztatzeko 2021eko epealdiak.*

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 33.1.a) artikuluan eta abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 33.2 artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen den uko egiteko eta uko-egitea ezeztatzeko epealdiak, 2021. urterako ondorioak sortu behar dituztenak, errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko urtarrilaren 31ra artekoak izango dira.

2. Bai balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuari eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide bereziari, bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoari 2021. urtean uko egiteko eta uko-egitea ezeztatzeko 2020ko abenduan aurkezten diren eskabideak, aurreko 1. apartatuan ezartzen den epealdia hasi aurretik aurkeztu ere, aldi baliodunean aurkeztutzat joko dira.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatzen denaren eraginpean dauden subjektu pasiboek beren hautapena aldatu ahal izango dute aurreko 1. apartatuan adierazten den epealdian.

13. artikulua. *Zerga-pizgarria errentamenduaren errenta beheratzea sustatzeko.*

Xedapen gehigarria, berrogeita bederatzigarrena, gehitzen zaio azaroaren 28ko 35/2006 Legeari, eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu; lege horren bidez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen da eta sozietateen gaineko, ez-egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak partzialki aldatzen dira. Hona testua:

«Berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *2021eko zergaldian lokalak enpresaburu jakin batzuei alokatuz lortzen diren kapital higiezinaren etekinetatik ken daitezkeen gastuak.*

Baldin eta errentatzaile batek, Turismoaren sektorea, ostalaritza eta merkataritza laguntzeko eta zerga-arloko premiazko neurrien abenduaren 22ko 35/2020 Errege Lege Dekretuak 1. artikuluan 1. apartatuan ezartzen dituenetakoa ez den batek, errentamendu-kontratua sinatzen badu ondasun higiezin bat etxebizitza-erabileraz besteko erabilerarako edo industria erabilerara baterako, Hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 3. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, eta errentariak ondasun higiezin hori ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifen lehen ataleko 6. dibisioko edo 755., 969., 972. edo 973. taldeetako jarduera ekonomiko bat egiteko erabiltzen badu (tarifa horiek irailaren 28ko 1175/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zituen), 2021ean kapital higiezinaren etekina kalkulatzeko gastu kengarri modura aplikatu ahal izango du 2020ko martxoaren 14tik aurrera bere borondatez ezarritako errentamendu-errentaren beharapena, hain zuzen ere 2021eko urtarrilean, otsailean eta martxoan sortutako hileko kopuruei dagokiena.

Errentatzaileak aurreko paragrafoan aipatzen den pizgarriaz baliatuz aplikatutako gastu kengarriaren berri eman beharko du bere zerga-aitorpenean eta, horrez gainera, errenta beheratu zaion errentariaren identifikazio fiskaleko zenbakia ere adierazi beharko du.

Xedapen honetan ezartzen dena ezin da aplikatu kasu hauetan: errentamendu-errentari beharapena aplikatu ondoren errentariak ondoko errenten gehikuntzekin edo beste prestazio batzuekin konpentsatuz gero; errentaria errentatzailearekin lotutako pertsona edo entitatea izanez gero (Sozietateen gaineko zergaren Legearen 18. artikuluan arautzen den lotura); errentaria eta errentatzailea ahaideak izanez gero (ezkontidea barne), zuzenekoak zein albokoak, odol-ahaideak zein ezkontza bidezkoak, bigarren gradura artekoak».

14. artikulua. *2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietan enpresa txikiek kenkaria aplikatzeko eskubidea edukiko dute zordunen kaudimengabezien ondoriozko kreditu-narriaduren galerengatik.*

Baldin eta sozietateen gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun batek errentak lortzen baditu Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor batengatik, eta haiek Sozietateen gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legeak 101. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte, 2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietan, zordunen kaudimengabezien ondoriozko kreditu-narriaduren galerak kendu ahal izango ditu hau gertatuz gero: zerga sortzen denean lege horren 13. artikuluan 1. apartatuko a) letran aipatzen den betebeharra betetzeko epealdia amaitu denetik hiru hilabete pasatu badira.

15. artikulua. *Errentarien zorrak kobrantza zalantzarrikoko saldotzat jotzeko epealdia laburtzea.*

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 13. artikulua e) letrako 2. zenbakian ezartzen den sei hilabeteko epealdia hiru hilabetekoa baino ez da izango 2020ko eta 2021eko ekitaldietan.

Artikulu honetan ezartzen den epealdia erregelamendu bidez aldatu ahal izango da.

#### IV. KAPITULUA

##### **Pizgarri erregionalak mantentzeko baldintzak malgutzea**

16. artikulua. *Pizgarri erregionalak mantentzeko norberaren funtsen zenbatzeari buruzko baldintzak malgutzea.*

Pizgarri erregionala emateko banakako ebazpenaren arabera onuradunak gutxieneko funts batzuk eduki behar ditu, 899/2007 Errege Dekretuak 8.b) artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri (899/2007 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, Pizgarri erregionalen erregelamendua onartzen duena eta abenduaren 27ko 50/1985 Legea, Lurraldeen arteko desoreka ekonomikoak zuzentzeko pizgarri erregionalei buruzkoa garatzen duena). Hori dela eta, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma-egoera deklaratu aurretik pizgarri erregionalen onuradun izendatutako eskatzaileen kasuetan ez dira kontuan edukiko 2020ko eta 2021eko ekitaldietako galerak.

17. artikulua. *Proiektuen gauzatzea eteteko gaikuntza.*

1. Pizgarri erregionala jasotzen duten enpresek eskatu ahal izango dute proiektua gauzatzeko baldintzak eta pizgarria emateko ezarritako baldintzak betetzeko epealdiak edo egutegia aldatzeko, 899/2007 Errege Dekretuak 31.1.d) artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri; 899/2007 Errege Dekretua, 2007ko uztailaren 6koa, Pizgarri erregionalen erregelamendua onartzen duena eta abenduaren 27ko 50/1985 Legea garatzen duena.

2. Aldatu nahi diren epealdiak amaitu baino lehen aurkeztu behar da eskabidea, baina ez da beharrezkoa izango gutxienez haiek amaitu baino 2 hilabete lehenago aurkeztea.

18. artikulua. *Pizgarri erregionala ematen zaien enplegua eta inbertsioa mantentzeko baldintzak betetzea.*

1. Pizgarri erregionala emateko banakako ebazpenetan ezartzen da onuradunak frogatu behar duela enplegua mantendu duela. Hori hala denetz egiaztatzeko, langile hauek zenbatuko dira: enpresarekiko erlazioa mantendu arren aldi batez lanean ari ez direnak legez ezarritako arazoietako bat dela bide izapidetutako eta administrazioak onartutako enplegu-erregulazioko espediente baten ondorioz, baldin eta aldi baterako etendura eragin duen egoera amaitutakoan berriz ere lehenengo lanpostuetara itzultzen badira aplikatu beharreko lanaren arloko arautegian ezartzen den legezko aldirako.

2. Pizgarri erregionala emateko banakako ebazpenetan ezartzen da onuradunak frogatu behar duela inbertsioa ohiko jardunean mantendu duela. Hori dela eta, ohiko jarduntzat joko da jarduera aldi batez uztea aparteko inguruabarrengatik, baldin eta dirulaguntza jaso duen inbertsioaren aktiboak jarduteko moduan mantentzen badira, enplegua jarduera egiteko behar den mailan mantentzen bada eta jarduerari berriz ekiten bazaio aldi baterako etendura eragin duten aparteko inguruabarrak amaitu bezain laster.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legeak 22.1 artikuluan aipatzen dituen entitateen errentamenduak.*

Errege lege-dekretu honen I. kapituluaren ezartzen diren aparteko neurriak ez zaizkie aplikatuko Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legeak 22.1 artikuluan aipatzen



dituen entitateen errentariei. Errentamendu horietan 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da; 23/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, zeinaren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen baitira.

Hala ere, 38/2015 Legearen 22.1 artikuluan aipatzen diren entitateen errentariak ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluan ezartzen diren neurriak aplikatzeko eskatu ahal izango dute errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik hilabete pasatu baino lehen.

*Bigarren xedapen gehigarria. 2021eko araubide iragankorra Merkataritzako ordutegien abenduaren 21eko 1/2004 Legeak arautzen dituen turismo handiko lurraldeetarako.*

2021eko ekitaldian, zona bat turismo handiko eremutzat jotzeko inguruabarrak gertatzen diren edo halako eremu baten deklarazioa berrikustean kontuan hartutako inguruabarrak mantentzen diren egiazatzeko, Merkataritzako ordutegien abenduaren 21eko 1/2004 Legearen 5.5 artikuluan eta hura garatzen duten arau autonomikoetan xedatzen dena aplikatuz, ez dira kontuan edukiko 2020ko biztanleen, ostatu-gauen eta gurutzaldietako bidaiarien datuak. Aitzitik, aurreko hiru urteetako (2017, 2018 eta 2019) batez bestekoa hartuko da kontuan.

*Hirugarren xedapen gehigarria. Aldizkako kontratu finkoak dauzkaten langileen jardueraldia luzatzen laguntzeko neurriak, turismo-sektorean eta turismo-jarduerari lotutako merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetan.*

1. Turismo-sektoreko jardueretan aritzen diren enpresek, bai eta turismo-sektore horri lotutako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetakoek ere (sektore publikoko enpresek ez beste guztiek), 2021eko apiriletik urrira bitartean ekoizpen-jarduerarik sortzen badute eta hil horietan alta ematen badiete, edota mantentzen badute aldizkako kontratu finkoak dituzten langileen okupazioa, ehuneko 50eko hobaria aplikatu ahal izango dute hil horietan langile horien gertakari arrunten Gizarte Segurantzako enpresa-kuotetan, bai eta langabezia, FOGASA eta lanbide-heziketaren baterako bilketaren kontzeptuen kuotetan ere.

Aurrekoa gorabehera, Estatuaren 2021eko Aurrekontu Orokorren Legeak beste neurri batzuk ezar ditzake helburu bererako eta beste aldi batzuetarako.

2. Hobari horiek bateragarriak dira Gizarte Segurantzaren enpresa-kuoten salbuespenekin. Salbuespen eta hobari horiek aplikatuta lortzen den emaitzaren zenbatekoa ezin da izan sartu beharreko enpresa-kuotaren % 100 baino gehiago.

*Laugarren xedapen gehigarria. 2021. urtean ez da aplikatuko jardunean gutxieneko zehatz batez aritzeko betebeharra, jarduerarik gabeko aldietan, ez Zezenketa-profesional Aktiboen Erroldan egoteko, ez eta ikuskizun publikoetako artistak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzeko ere.*

1. Ikuskizun publikoetako artistak 2020. urteko aldiren batean Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon badira jarduera horretan edo ez-aktibo egon badira, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 249 ter artikuluan ezartzen den bezala (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen), 2021eko ekitaldian eskatu ahal izango dute Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzeko jarduerarik egiten ez duten aldietan, eta ez dituzte bete beharko artikulua horretan ezartzen diren baldintzak.

2. 2021eko ekitaldian Zezenketa-profesional Aktiboen Errolda eguneratzeko, zezenketa-profesionalek ez dute edukiko zertan frogatu 2020ko zezenketa-sasioan gutxieneko ikuskizun batzuetan parte hartu dutela, 1987ko uztailaren 20ko Aginduaren 11. artikuluan 3.1 apartatua ezartzen den bezala; agindu horren bidez, errege-dekretu hau garatzen da: 2621/1986 Errege Dekretua, abenduaren 24koa, zenbait araubide berezi bateratzen dituena aplikazio-eremuari, enpresen inskripzioari, afiliazioari, alta eta bajei, kotizazioei eta bilketari dagokienez.

Aurrekoaren ondorioz, 2021eko urtarrilaren 1etik Zezenketa-profesional Aktiboen Erroldan alta emanda daude 2019ko abenduaren 31n alta emanda egon ziren zezenketa-profesional guztiak, bai eta 2020. urtean zehar Erroldan sartu direnak ere.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak.*

1. Epealdi berria ezartzen da Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuak 1. artikuluan araututako langabezia-sorospen berezia eskatzeko: hilabete bat errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunaren biharamunetik aurrera. Epealdi hori igaro ondoren aurkezten diren eskaerak ukatu egingo dira.

2. Sorospen hau eskatzeak berekin ekarriko du Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 300. artikuluan aipatzen den jarduera-konpromisoa hartzea.

Seigarren xedapen gehigarria. *Ministro Kontseiluak onartutako planetan jasotzen diren Estatuaren segurtasunerako azpiegiturak interes orokorrekotzat deklaratzeko.*

Legeetan ezartzen diren ondorio guztietarako, interes orokorrekoak izango dira Ministro Kontseiluaren erabakien bidez onartutako Estatuaren segurtasunerako azpiegituren planetan jasotzen diren azpiegiturak, instalazioak eta ekipamenduak eta atzerritarrak barneratzeko zentroak eraikitzeko, eraberritzeko, hobetzeko, handitzeko edo birgaitzeko obrak.

Xedapen iragankor bakarra. *Araubide iragankorra Estatuko Administrazio Orokorra sustatzen dituen egintza hauetarako: aurretik udalaren esku-hartzea izango dutenak eta Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginean ezartzen den larrialdiko izapidetzea aplikatzeko ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenak (testu bategin hori urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).*

Azken xedapenetako bigarrena errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 243. artikuluan ezartzen duen jasotze-egintzaren aurreko izapideak egiteko dituzten proiektuei edo jarduketek aplikatuko zaie. Kasu horietan, salbuespenez, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginaren hamargarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan ezartzen den prozedura hasitzat joko da organo eskudunak larrialdia deklaritzen duenean (testu bategin hori urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen). Gainera, xedapen gehigarri horren 4. apartatuaren a) eta b) letratan arautzen diren jarduketak izapide bakar batean eskatu ahal izango dira. Baldin eta udalak edo autonomia-erkidegoak ez badu ebazpenik ematen ezarritako epealdiaren barruan, jarduketek aurrera egin ahal izango dute.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 42. artikulua 3. apartatuaren a) letra, eta aldaketa horrek ondorioak izango ditu 2020ko urtarrilaren 1etik. Hona testu berria:

«a) Enpresako kantina edo jantokietan nahiz izaera sozialeko ekonomatoetan langileei prezio beheratuan produktuak ematea. Enpresako jantokietan langileei prezio beheratuan produktuak ematezat joko dira zerbitzua egiteko zeharkako formulak, baldin eta zenbatekoa ez bada erregelamenduz ezartzen dena baino gehiago, eta zerbitzua ostalaritzako establezimenduan bertan egin zein kanpoan egin, bai langileak bertan jasotzen duenean, bai lantokian uzten denean, eta

urrunetik edo lanpostura joan gabe lan egiten den egunetan, horretarako hautatzen den tokian jasotzen denean ere bai».

Azken xedapenetako bigarrena. *Urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina aldatzea.*

Beste apartatu bat, 4 a, gehitzen zaio hamargarren xedapen gehigarriari, eta honela idatzita geratzen da:

«4. Baldin eta 1. apartatuan aipatzen diren egintzek Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 120. artikuluan arautzen duen larrialdiko izapidetzerako eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte, gaiaren arabera eskumena daukan ministroak premia edo interes publikoa deklaratu duen ministro-agindu berean deklaratu ahal izango du larrialdi-egoera, eta horrela apartatu horretako epealdiak era honetara laburtuko dira:

a) 5 egun natural, udalari jakinarazi ondoren, udalak adierazi beharko baitu proiektua indarreko hirigintza-antolamenduarekin bat datorren edo ez. Udalak jakinarazpen hori adierazitako epealdiaren barruan egiten ez badu, prozedurak aurrera egingo du ezarrita dagoen bezala.

b) 5 egun natural, jakinarazpena egin ondoren, autonomia-erkidegoko organo eskudunak txostena egin dezan. Autonomia-erkidegoak jakinarazpen hori adierazitako epealdiaren barruan egiten ez badu, prozedurak aurrera egingo du ezarrita dagoen bezala».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatzea.*

Bat. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, hogeita hamaikagarrena, eta honela idatzita geratzen da:

«Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Kuotak itzultzea enpresa eta langileen datuak aldatuz gero.*

Enpresaburuen edo langileen datu batzuk, aurretik aurkeztutakoak, aldatzeko edo zuzentzeko eskaera epez kanpo egiten bada eta sartutako kuotak itzuli behar badira, eskaera aurkeztu aurreko hiru hiletako zenbatekoa baino ezin izango da jaso itzulketan».

Bi. Hamaseigarren xedapen iragankorra aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«Hamaseigarren xedapen iragankorra. *Kotizazio-oinarriak, kotizazio-tasak eta babes-ekintza Etxeko Langileentzako Sistema Berezian.*

1. Lege honek II. tituluko II. kapituluko bigarren atalean ezartzen duena eragotzi gabe, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ezartzen den Etxeko Langileentzako Sistema Berezian arau hauek aplikatuko dira Gizarte Segurantzari egin behar zaion kotizaziorako:

a) Kotizazio-oinarrien kalkulua:

1.a Kontingentzia arruntei eta profesionali dagozkien kotizazio-oinarriak Estatuko urteko aurrekontu orokorren legean ezartzen den eskalaren arabera zehaztuko dira, etxeko langileen ordainsariak aintzat hartuta.

2.a 2022ra arte, eskalako hileko ordainsariak eta kotizazio-oinarriak lanbide arteko gutxieneko soldata handitzen den proportzio berean eguneratuko dira.

3.a 2023tik aurrera, gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak lege honen 147. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira; halere, kotizazioa ezingo da txikiagoa izan legez ezartzen den gutxieneko oinarria baino.

b) Aplikatzen diren kotizazio-tasak:

1.a Kontingentzia arruntei dagozkien kotizazioak: 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, dena delako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrerako, oro har, ezartzen den kotizazio-tasa aplikatuko zaio a) letran ezartzen denaren araberrako kotizazio-oinarriari, eta kotizazioak bertan adierazten den bezala banatuko dira enplegatzailearen eta enplegatuaren artean.

2.a Kontingentzia profesionalei dagozkien kotizazioak: lege ezartzen den primen tarifako kotizazio-tasa aplikatuko zaio a) letran ezartzen denaren araberrako kotizazio-oinarriari, eta horren emaitzako kuota enplegatzaileak ordainduko du osorik.

2. 2012tik 2022ra arte, 247. artikulua a) letran aipatzen den partzialtasun-koefizientea —Etxeko Langileentzako Sistema Berezian aplikatuko dena— zehaztearen ondorioetarako, hartan benetan lan egindako orduak honela zehaztuko dira: xedapen honen 1.a) apartatuko 1. eta 2. puntuetan aipatzen diren kotizazio-oinarriak zati Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ekitaldi horietako bakoitzerako Araubide Orokorraren orduko gutxieneko oinarriko finkatutako zenbatekoa eginda.

3. 251.a) artikuluan ezartzen dena 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

4. 2012. urtetik 2022. urtera arte, etxeko langileek sistema berezian dauden aldiak sortutako kontingentzia arruntaren ondoriozko ezintasun iraunkorraren pentsioen eta erretiro-pentsioen oinarri arautzailea kalkulatzeko, benetan kotizatutako aldiak baino ez dira kontuan edukiko, eta ez da aplikatuko 197.4 eta 209.1.b) artikuluetan ezartzen dena».

Azken xedapenetako laugarrena. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen dituen maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen dituen maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da, hain zuzen ere 11. artikulua 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«Laguntza horiek COVID-19aren krisiaren eraginez zinema-aretoek 2020. urtean eta 2021eko maiatzaren 31ra arte egiten dituzten gastuak ordaintzeko erabiliko dira. Hona hemen gastuak:

a) Hartutako osasun-neurrien ondorioz sortutako ustekabeko gastuak. Besteak beste, langile eta erabiltzaileentzako arriskuen prebentziorako plana ezartzea, desinfektatzea, materiala erostea (maskarak, eskularruak, xaboi desinfektatzailea, manpara edo babeskiak) edo seinale berariazkoak, pertsonen babesa eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren beste elementu eta ekintza batzuen artean.

b) Zinema-aretoak berriro zabaltzeko eta jendea aretoetara berriro joateko kanpainak.

c) Eskolako kanpainen programazioa areagotzen duten jarduketak.

d) Aretoetan espainiar zinema sustatzeko eta trailerra eskaintzeko publizitate-guneak, baita kanpaina instituzionalak erakusteko ere».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren 29. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«29. artikulua. *Beste administrazio batzuekiko lankidetzaren mekanismoak.*

1. Lankidetzaren harremanak areagotzeko, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ez-kontributiboaren kudeaketaren efizientzia hobetzeko eta bitarteko eta

zerbitzu publikoen baterako erabilera errazteko, elkarrekiko laguntzaren eta informazio-trukearen bidez, Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazio Ministerioak edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren Administrazioak hitzarmenak edo akordioak egin ahalko dituzte edo lankidetzarako beste edozein tresna erabili ahal izango dute Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia-erkidegoetako administrazioetako eta toki-entitateetako beste organo batzuekin.

2. Autonomia-erkidegoek onuradun izan daitezkeen pertsonak identifikatzeko eta prozedura burutzeko behar diren datuak bidali ahal izango dizkiote Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari, eta horrek bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa onartu ahal izango die interesdunei, hots, datuok berariaz prestatutako informazio-trukerako protokolo telematikoen bidez helarazteko adostasuna ematen duten interesdunei. Gainera, autonomia-erkidegoek egindako ziurtagiria nahiko izango da entitate kudeatzaileak eskaera egindakotzat jotzeko, hain zuzen, ziurtagiria jasotzen den egunean aurkeztutzat.

Ziurtagiri horrek honako hauek egiaztatuko ditu (kasuan kasukoak): elkarbizitza-unitatera eratuta dagoela errege lege-dekretu honen 6. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz eta 4., 5. eta 7. artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen direla; badauzkala baldintza horiek betetzen direla frogatzen duten agiriak. Salbuespena: errege lege-dekretu honen 8. artikuluan aipatzen den zaurgarritasun ekonomikoaren baldintza betetzen den edo ez Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak aztertuko du.

Halaber, ziurtagiri hori nahiko izango da entitate kudeatzaileak ebazteko aurreko paragrafoetan adierazten diren baldintzak betetzen direla autonomia-erkidegoak ziurtagiria egin duen egunean. Nolanahi ere, autonomia-erkidegoak dokumentazio osoa bidali beharko dio Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari prestazioaren ebazpenetik sei hilabete pasatu baino lehen edo, bestela, eskaera aurkeztu ondoko hamar egun baliodunetan, erreklamazioaren bat ebazteko beharrezkoa izanez gero.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubidea ziurtagiria aurkeztu eta hurrengo hileko lehen egunean sortuko da.

Autonomia-erkidegoei ezarritako informatika-protokoloen bidez emango zaie Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ebatzitzeko espedienteen berri.

Baldin eta autonomia-erkidegoak egindako ziurtagiri baten bidez onartzen den prestazioa gerora bidegabetzat jotzen bada eta ordaindutako zenbatekoa berreskuratzerik ez bada, egindako kalteak autonomia-erkidegoaren kontura izango dira».

Azken xedapenetako seigarrena. *Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Lehenengo artikuluan 4. apartatua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«4. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatuko du subsidio berezia, langabezia-babeseko prestazioetatik eratorritako eginkizunak eta zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeak diren aldetik».

Azken xedapenetako zazpigarrena. *SARS-CoV-2aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren Europar Batasunaren barruko ondasunen emateei, inportazioei eta eskuratzeei eta zerbitzu-emateei aplikatuko zaien balio erantsiaren gaineko zergaren tasa, eta baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2022ko abenduaren 31ra arte balio erantsiaren gaineko zergaren tasa % 0 izango da eragiketa hauetan:

a) COVID-19aren in vitro diagnostikoak egiteko Europar Batasunaren barruko osasun-produktuen emateak, inportazioak eta eskuratzeak, baldin eta xedapen hauek ezartzen dituzten baldintzak betetzen badituzte: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/79/EE Zuzentaraua, 1998ko urriaren 27koa, in vitro diagnostikoetarako osasun-produktuei buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2017/746



Erregelamendua, 2017ko apirilaren 5ekoa, in vitro diagnostikoetarako osasun-produktuei buruzkoa, Batzordearen 98/79/EE Zuzentaraua eta 2010/227/EB Erabakia eta irailaren 29ko 1662/2000 Errege Dekretua, «in vitro» diagnostikoetarako osasun-produktuei buruzkoa, indargabetzen dituena.

b) Europako Batzordeak baimendutako SARS-CoV-2aren kontrako txertoen emateak.

c) Aurreko a) eta b) letretan ezartzen diren Europar Batasunaren barruko emate, inportazio eta eskuratzeekin lotutako garraio-zerbitzuak, biltegiratze-zerbitzuak eta banaketa-zerbitzuak.

Eragiketa horiek, fakturretan, eragiketa salbuetsi gisa dokumentatuko dira.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den aldian zehar, eta aipatzen diren ondasunen emateei dagokienez, % 0ko baliokidetasun-errekargua aplikatuko zaie.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Erregelamendu bidez garatzea eta betearaztea.*

Gobernuari eta ministerioetako titularrei, nori bere eskumenen esparruan, ahalmena ematen zaie errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Eskumen-tituluak.*

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 7., 8., 13., 14. eta 17. puntuen babespean ematen da, zeinek honako hauek arautzeko eskumena ematen baitiote Estatuari: konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzak; lan-arloko legeria, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek betearaztea; legeria zibila, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek zuzenbide zibil, foru-zuzenbide edo zuzenbide bereziak —halakorik dagoen lekuetan— gorde, aldatu eta garatzeko dituzten eskumenak; ekonomia jardueraren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; Estatuaren ogasun publikoa eta zorra; Gizarte Segurantzaren arloko oinarrizko legeria eta ekonomia-araubidea, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek gauzatzea haren zerbitzuak. Horrez gainera, Espainiako Konstituzioaren 149.2 artikulua xedatzen duenaren babespean ere ematen da, zeinaren arabera, Estatuak betebeharrak eta funtsezko eskumenez jotzen du kulturaren zerbitzua, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek horren gaineko eskumenak har ditzakete.

Azken xedapenetako hamargarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2020ko abenduaren 22an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN